

455.ZENBAKIA-ORIOKO ETA AIAKO ALDIZKARIA-2023KO AZAROA

# KARKARA

GUKA



ORIOKO-EMAKUME SURFLARIAK

# OLATU BERRIEN BILA

**ANORGA TXIKI, S.L.**  
**KRISTALDEGIA**

Oria etorbidea, 4  
 LASARTE-ORIA

anorgatxiki@gmail.com  
 www.cristaleriaanorgatxiki.com  
 943-37 17 33 · 610 45 93 45

- Eraikin komertzialak
- Kristaldura bikoitza
- Segurtasun beirak
- Dutzako manparak eta ispiluak

Pelotari, 5 · ORIO  
 943-83 00 34  
 autolan13@hotmail.com



**AUTO - LAN C. B.**



ARDORA  
 arraindegia

Eusko Gudari, 4  
 © 943-09 28 17 ☎ 623 47 57 52  
 ardoraarraindegia@yahoo.com  
 ORIO

arkaitz taberna  
 ... orio ...

- EGUNEKO MENUA
- OGITARTEKOAK
- PINTXOAK
- PLATER KONBINATUAK
- KARTA

*Terniza ederrarekin giro ezin hobea*

abeslari kalea 6 · 943-83 16 57

**azkue**  
 karrozeriak

Ubegun industrialdea, 7  
 AIA-ORIO  
 943-83 51 86

**azkue**  
 auto

Olaskoegia z/g  
 AIA-ORIO  
 943-13 04 38

**IGLESIAS SARRAILAGILEAK**

iglesiascerrajeros@yahoo.es  
 www.iglesiascerrajeros.com  
 Erribera kalea, 14 · ORIO  
 637 72 33 08

- Ateak irekitzen ditugu
- Sarraila-zilindro aldaketak
- Ateak ixteko malgukien aldaketa
- Komunitateentzako zerbitzua

24orduko zerbitzua

**fontana iturgintza**  
 iturgintza · gasa · berogailuak

Zerbitzu teknikoa  
 24 ordu

- Komun eta sukaldeen erreforma
- Galdara eta termo elektrikoan instalazioa
- Ur-jarioak aurkitu eta konpondu
- Bainujontzia kendu eta dutxa jartzea
- Zoru erradiatzailea

Arantzale kalea, 3 · ORIO  
 fontana-jul@hotmail.es  
 www.fontaneria-fontana.com  
 943-53 98 88 · 661 26 28 28

**Joseba AROZTEGIA · CARPINTERIA**

ATEAK  
 ZOKALOAK  
 ARMAIRUAK NEURRIRA  
 LEIHOAK  
 ESKAILERAK  
 AROZTEGIA OROKORREAN

687 683 427  
 josebaarotza@gmail.com

**KAÏOA**

kaioa\_denda  
 www.kaioa.es





# KARKARA 455

2023-AZAROA

AZALEKO ARGAZKIAREN EGILEA:  
ARNAITZ RUBIO APREA



## Aurkibidea

- 5 **Iritzia** Aritz Mutiozabal  
*Ibaiaren hegiz zabala*
- 6 **Hitz tantak** Jabi Gonzalez Toston  
*Amaia Gozategi: "Doluak ez dio eragiten soilik heriotzari"*
- 8 **Izpiak eta hizkiak** Andrea Zipitria  
*Oteizaren erraldoia etorri da bisitan*
- 11 **Gutunak**
- 12 **Herrian galdezka**
- 13 **Moila bazterretik** Garbiñe Manterola *Ixura*
- 14 **Akuilua hartuta** Orioko Mugimendu Feminista *Azaroak 30, Greba Feminista Orokorra*
- 16 **Elkarrizketa** Aiora Larrañaga Solaberrieta *"Kirola baino gehiago, surfa bizimodua dela esan daiteke"*
- 24 **GUKA Erreportajea** Aritz Mutiozabal *Jaso eta eman, borondate osoz*
- 32 **Erreportajea** Andrea Zipitria *Jokoen atzean dagoen mundua*
- 36 **Iritzia** Aratz Madariaga *Palestina libre*
- 38 **Guka gara!**
- 39 **Euskara** Nadeth Arruti *Ouladmhand: "Oinarrizko hizketaldietan euskaraz komunikatzen saiatuko naiz"*
- 40 **Oroimenaren kutxa** Iñaki Iturain *Herriko musikariak: Txarangak, bandak... (I)*
- 45 **Ikasleak idazle** Zaragueta Herri Eskola *"Haur bakoitza bakarra da"*
- 46 **Plazan bazan**

## KARKARA



### Argitaratzailea

Urolako Komunikazio Taldea  
Koop. Elk.  
Soreasu 1. 20730  
AZPEITIA  
943-83 15 27  
karkara@karkara.eus  
www.karkara.eus

### Erredaktoreburua

Aiora Larrañaga  
Solaberrieta

### Erredaktore taldea

Onintza Lete Arrieta  
Andrea Zipitria  
Aritz Mutiozabal  
Jabi Gonzalez Toston  
**Diseinu arduraduna**  
Saioa Perona Balda

### Publizitatea

Leire Martija  
Mikel Azkue

### Zenbaki honetako kolaboratzaileak

Garbiñe Manterola  
Aratz Madariaga  
Ihintza Elustondo  
Nadeth Arruti  
Iñaki Iturain

### Banatzaileak

Endika Ruiz (Orio)  
Manex Dorronsoro (Orio)  
Eli Irureta (Aia)

### Inprimategia

Antza Inprimategia  
(Lasarte-Oria)  
**Lege Gordailua:**  
SS-346/90  
**ISSN:** 1132-1105  
**Tirada:** 4.000 ale



Gipuzkoako Foru Aldundia



ORIO



AIAKO  
UDALA

Babesleak:



## PUBLIZITATEA



%100 etxean egina  
**PIZZERIA**  
**KALETA**

Arrantzale kalea, 10 943-24 89 46

# Gabon

TABERNA

Eusko Gudarien kalea, 7  
943-83 06 09



# Katu Horia

albeitaritzza klinika

ESTROPALARIZ, 10  
20510 ORIO  
tel. 943 11 66 99

Larrialdia: 66889/1129



# GARMENDIA

Higiezin Agentzia  
Aholkularitza  
Aseguruak

943-83 44 66 - 688 75 59 48  
Ibai Ondo, 1 - ORIO  
info@egarmendia.com

# ITZIAR

KIROLAK

Eusko Gudarien kalea, 23  
ORIO  
943-83 31 03



# BODEGA KATXIÑA

Ortzaika, 20 - ORIO  
943-58 01 66 - 606 36 76 93  
www.bodegakatxina.com · f i

# Kepa Loidi

harategia-urdaitegia

24 orduz harategi banagailua

Pelotari kalea, 1 - Orio · 943-83 25 65  
www.kepaloidi.com - info@kepaloidi.com



# KORTABERRI

arotz lanak

Imanol Illarramendi  
Aia (Gipuzkoa)

kortaberri.arotza@hotmail.com 665 70 33 47



# Kolon Txiki

edaritegia · jatetxea

Herriko Enparantza 4  
ORIO  
Tel.: 943-83 00 44

# kutixi

kafetegia

Aritzaga 9 • ORIO • 943-13 15 17

# Carmen eta Txomin

ARRANDEGIAK



943-83 05 37  
943-83 27 47



# LASTER

DESATASCOS

688 88 65 36 | 943-75 14 31  
desatascos@desatascoslaster.com  
ORIO | SORALUZE

Hemengo haragia.  
Etxeko produktua: tripaki, odolki,  
txekorra, txorizo, kroketa...

# HARATEGI PATXI OLIDEN

URDAITEGIA

Eusko Gudari, 25 - 943-83 00 10

# Ibaiaren hegi zabala



ARITZ MUTIOZABAL

**B**arre galantak egin dituzte nire kolkotik. *Festa antolatu ditek hire omenez Orion!* Norberari komunikatzaile sena ateratzen zaio orduan, eta hasten zara kontatzen Mutiozabal ontziola zaharberriaren inguruan dakizun apurra. Motzean, ondare historikoa dela eta horrek izan duen garrantzia sozioekonomikoa herriarentzat. *Tira, tira, Mutio! Ez hadi horren serio jarri, txantxetan ari gintuan eta!*

*Mutio.* Oraindik ere, nire abizenaren laburduraz deitzen naute kuadrillakoek eta nire kintako jende askok. Despistaturen batek *Mutiu* ere bai, garai bateko Realeko jokalaria nigeriarra bezala. Hauxe destino petrala hirea, Aritz! Gurutzebidea hori izan da, azken finean. Nire belaualdian eta Zarautzen dozena bat familiari otu zitzaioa beren seme jaioberriari Aritz izena jartzea. Batzuk H-rekin, eta gehienak, gabe. Ondorioa da inork ez duela izena mantentzen egun: Anbu, Mante, Uranga, Sarasola, Albixu, Huegun... eta Mutio.

Hori gutxi balitz, nire Mutiozabal familiak goitizen bati erantzuten dio Zarautzen. Txikitan ohikoa izaten zen pertsona heldu batek zera galdetzea: "Eta zu zeinetakoa zara?". Nik gorrotatzen nuen *bonus track* momentu hori, izan ere, jada ez nintzen Aritz, ezta Mutiozabal ere, eta are gutxiago, Mutio: "Txabillotarra naiz". *Eccoli cua!* Orduan, mundu guztia hasten zitzaidan Zarauzko buruhandi eta erraldioen istorioekin gora eta behera, Pepe Txabillo ezagutzen zutela eta estimu handia ziotela esanez.

Denboraren poderioz, gehiago balioetsi dut nire aitonaren anaiak herriko jaien alde hamarkadaz hamarkada egindako lan-eskerga. Txabillotarrak oso maitatuak izan dira, eta horren adibide da Pepe Txabilloren erraldoi bat dagoela haren omenez. Duela urtebete pasatxotik errelebo gisa sortu zen herriko elkarte berriak jartzen ditu dantzan erraldoiak eta maskuriak astintzen buruhandiak. Pellok eta Nikolasak ere lemazain berriak behar omen dituzte, antza.

*Ahotsak.eus* atarian jasota dago 2005ean Pepe Txabilloren testigantza, eta bertan kontatzen du ezizen xeblearen jatorria. Badirudi nire arbasoek taberna izan zutela Gipuzkoa kalean, Antoniano porean edo, eta estabiezimenduak Txabillo izena zuen. Hala ere, etxean erakutsi dizkidaten argazki zaharretan –eta arbola genealogikoetako polkaren garaiko data haien azpian– beti nabarmendu da Mutiozabal abizena Usurbil aldetik datorrela; xeheago esateko, Aginagatik.

Asko ikertu eta gero, orain badakit zer demontre esan nahi duen nire abizenak. Eta zin dagit, baduela zentzua; ibaiaren hegi zabala baita Mutiozabal. Itsasbehera den bakoitzean ematen dio erriok arrazoia. Herriko Plazatik erriorearen bestaldera so eginez, berriz, nortasuna. ■■■

**BETI NABARMENDU DA  
MUTIOZABAL ABIZENA  
USURBIL ALDETIK  
DATORRELA; XEHEAGO  
ESATEKO, AGINAGATIK**

# Amaia Gozategi: "Doluak ez dio eragiten soilik heriotzari"

**TESTUA:** JABI GONZALEZ TOSTON

**ARGAZKIA:** AIORA LARRAÑAGA SOLABERRIETA

Hildakoak gogoratzeko eguna izan ohi da azaroaren 1a, Santu Guztien Eguna, erlijio katolikoan. Euskal Herrian ohitura kristauak nagusitzen direnez, herritar askok hilerrria bisitatu dute azken egunotan bertan lurperatu zituzten pertsona maitatuen hilobiak txukundu eta loreekin apaintzeko. Bada, hildakoak oroitzeaz, eta, batez ere, dolu prozesuez asko daki horietan aditua den Amaia Gozategi (Orio, 1974) Zainbizi elkartearen sortzaileak eta lehendakariak.

## **Zer nolako garrantzia ematen diozu egutegian hildakoak oritzeko data zehatzak izateari?**

Egia da gure kulturaren foku berezia jartzen dugula azaroaren 1ean, baina gure elkartean uste dugu nahitaezkoa dela lanketa zabalagoa egitea, gizarte osoari eragiten diolako heriotzak. Zentzu horretan, uste dugu beharrezkoa dela pedagogia gehiago egitea gaiaren inguruan, bizitzaren zati garrantzitsua delako eta presenteko egon beharko lukeelako.

## **Iruditzen zaizu, beraz, eskoletan gehiago landu beharko luketela gaia?**

Ikastetxeetatik deiak jaso izan ditugu baliabideak eskatzeko ikasleren bati gurasoren bat edo aiton-amonak hil zaizkionean; izan ere, ez zekiten egoera nola bideratu. Horregatik, uste dugu hezkuntzak baduela zeregina heriotzaren arloan. Ez dakit ikasgai bat sortzea den horretarako bidea, baina txertatu lezakete biologian, adibidez. Bizitza nola sortzen den erakusten duten bezala, horrek amaiera ere baduela erakustea beharrezkoa baita; ziklo osoa, alegia. Landareetan edo zuhaitzetan errazagoa da hori ikustea, baina animaliekin edo pertsonekin gehiago kostatzen da haien galerak mina dakarrelako eta deskonektatzeko joera dugulako.

Dena den, gero eta gehiago lantzen dute gaia ikastetxeetan. Ezagutzen ditut hainbat irakasle horretan dihardutenak, eta lanketa minimoa eginda lortu dituzten emaitzak zoragarriak dira, ikasleek benetan ulertzen dutelako zer den senide bat hiltzea. Heriotza mahai gainean

jartzearekin bakarrik, haurrek galdu egiten dute beldurra galderak egiteko.

## **Heriotzak jarraitzen du tabu izaten?**

Bai. Azken batean, beldurra diogu heriotzari. Gainera, urte luzez iruditu zaigu medikuei soilik eragiten zien gauza zela, baina gerora konturatu gara medikuak ez direla denera iristen eta ez dutela zertan iritsi beharrik ere. Esan bezala, heriotzak orokorrean eragiten dio gizarteari.

## **Dena den, doluaz mintzo garenean, horrek ez dio soilik heriotzari eragiten bere horretan, ezta?**

Dolu prozesuak ez dira hasten pertsona hildakoan bakarrik. Gaixotasun terminal baten diagnostikoa jasotzeak ere dolu prozesua dakar. Azken finean, ordura arte izan dituzun bizi ohiturak aldatu egin beharko dituzu eta beste era batera hartu beharko duzu zure egunerokoa. Bat-bateko heriotzak gertatzen direnean, istripuek edo bihotzkoek eraginda, adibidez, bestelakoak izaten dira lanketak. Era berean, doluak ez dago zertan heriotzari lotuta egon. Bikote hausturei aurre egiteko prozesuak ere mingarriak dira.

## **Doluminak ematea ere ez da erosoa izaten. Askotan ez da jakiten zer esan, eta esaldi eginak erabiltzen dira.**

Halakoetan, aski da begietara begiratzearekin, zer esan ez dakigula aitortzearekin, eta besarkada bat ematearekin. Isiltasunari eustea kostatu egiten zaigu gure kulturaren, eta zerbait esateko beharra sentitzen dugu beti. Gainera, doluminak ematera doanarentzat da deserosoagoa egoera senidea hil zaionarentzat baino. Azken batean, galera izan duenaren mina maite zuen pertsonaren heriotzak eragiten du; doluminak ematera doanak ez du min hori, baina keinua egiteko heriotzaren aurrean kokatu behar izan du, eta hori da beldurra eragiten diona, konturatzen delako egun batean hura ere hil egingo dela. Horregatik, nire gomendioa da zuzen jokatzeta eta hausnartzea guk nola jaso nahiko genituzkeen doluminak, ondoren, modu horretan egiteko esaldi eginetara jo gabe; izan ere, trakets jokatzeko askotan. Era berean, gertukoren bati gure laguntza eskaini nahi badiogu, zer nahi duen galdetzea da onena, hura ezertara behartu baino lehen. ■■■



# Oteizaren erraldoia etorri da bisitan

**ARGAZKIA ETA TESTUA:** ANDREA ZIPITRIA

Jorge Oteiza artista oriotarra jaio zela 115 urte bete ziren urriaren 21ean, eta urteurrena ospatzeko kalejira berezia antolatu zuten herrian barrena, herriko erraldoien konpartsa eta Eguesibarreko konpartsa elkartuta. Hala, oraingoan Pello eta Nikolasa erraldoiek beste lau erraldi izan zituzten lagun, eta horietako bat oso berezia: Jorge Oteizaren erraldoia. Haiekin batera ziren Pepita Uriz irakaslea eta Peio eta Irati dantzariak ere. Giro ederra sortu zen erraldoiek herrigunea zeharkatu zuten bitartean, kalejira koloretsua egin baitzuten dultzaineroen doinuez lagunduta. Hendaia plazan hitzordua jarrita, guraso eta haur ugari bildu ziren erraldoien bueltan, eta haurrek gogotik gozatu zuten.








## PUBLIZITATEA

**MENDIZABAL**  
**AROTEGIA**  
*Neurriko armairuak eta egurlanak*

Altzerri bidea, Beti-Alai etxea · AIA-ORIO  
943-83 11 75 · 645 70 84 91  
mendi@arotzgi.net

**OINARRI** **PODOLOGIA ZENTROA**



Arrantzale kalea, 63 behea  
ORIO  
943-57 53 61  
oinarri@podologia-oinarri.com  
www.podologia-oinarri.com

**PAKO IMAZ**

pertsianak



**PERTSIANAK**  
aluminioa  
motorrak  
automatismoak  
konponketak

600 70 52 27 · 943-13 29 01  
pakoimaz@hotmail.com · ORIO

**Oreka**  
fisioterapia

Eusko Gudari, 54 · 943-13 35 37

Ekografia muskulo-eskeletikoa  
Eskuzko terapia · Talka-uhinak  
Masaje terapeutikoa · Osteopatia



**Portu**  
*Erreteta - Jateketa*

Kazolitat, baserriko oilaskoa,  
parrillako errekiak, eguneko menua...

Santio Erreka auzoa, z/g · AIA  
943-89 44 34



Orioko  
Herri  
Ikastola  
**ORIO GARA**

Abeslari kalea, 8  
943-83 47 04  
Fax-a: 943-13 09 38  
orio@ikastola.eus  
www.oriokoikastola.eus



**Sagasti**  
LEIHOAK

Tel.: 943-13 00 77 - Fax 943-53 71 50  
sagasti@sagastileihoak.com  
Eusko Gudari, 7  
20810 Orio

Kalitatezko materialak  
PVC eta aluminioa · Isolamendu termiko eta akustikoa  
Salmenta osteko zerbitzua

Roberto Sagasti

www.sagastileihoak.com

BODEGON

**Sarasua**



info@bodegonsarasua.es | www.bodegonsarasua.com | Erreserbak: 943-83 00 05

**SU KIA**  
TABERNA · JATEKETA

Eguneko menua  
Asteburuetakoa  
Oilaskoak eramateko  
Ogitartekoak  
Plater konbinatuak  
Terraza ederra  
(alboan umeentzako parkea)

Abaromendi 38, behea 1  
ORIO · 943-89 21 29



**INDO**

Garraio frigorifikoa  
Nazionala eta Nazioartekoa

generoa



garraioak



Ubegun industriagunea, 4  
AIA-ORIO  
943-89 4024 · FAX-a: 943-13 01 44

kamarak

ibilbideak

## Agur ez, eskerrik asko bai

### JON SALSAMENDI

ORIO ARRAUNKETA ELKARTEKO  
GIZONEZKOEN TRAINERUKO  
ENTRENATZAILE OHIA  
ORIO

Urriaren 10ean, astearte gauean, jasotako telefono deia ren ondoren, familiari eta 2023ko denboraldian nirekin batera aritutako arraunlariei adierazi nien, 2024ko denboraldian ez nintzela Orio AEko entrenatzailea izango. Orditik honaino, arraun elkarteko hauteskunde prozesu bat medio, beste inon ez dut adierazpenik egin nahi izan, beti ere, prozesu horri eta elkarteari diodan errespetu eta maitasunagatik.

Urriaren 17an, asteartean, berriz, behin betiko zuzendaritza batzorde berria aurkezteko ezohiko batzarraren ondoren, presidente berriaren adierazpenak entzunda, nire izenak, berriro ere Orio AEren 2024ko proiektuarekin nolabaiteko binkulazioa eduki zezakeela airean geratu zela iruditu zitzaidan. Gauzak horrela, batzuk era batera eta beste batzuk bestera, denetarik

**"HERRI BIZIKIDETZA  
ZAINZTEN EZ BADUGU,  
BESTE GUZTIAK EZ  
LUKE INONGO  
ZENTZURIK"**



Jon Salsamendi. AITZIBER ARZALLUS

esan edo entzun daitekeela onartuz, nire aldetik, esatekoak, isiltasunetik askoz hobeto ulertuko zaidalakoan nago.

Gaur, urriak 20, ostirala, gauza bat bakarra dut esateko. Laster 53 urte beteko ditut, 38 jarraian arraunean eta horietatik 27 Orion. Orio AE osatzen duen komunitate osoari, zaleei, babesleei eta Orioko udal eta herritar guztiei, eskerrik asko. Momentu zoragarriak bizitzeko emandako aukeragatik, eskerrik asko. Kirol emaitzak albo batera utziz, hainbeste urtetan, hainbeste arraunlarirekin (ehunka) bizitakoa elkarrekin bizitzen uzteagatik, eskerrik asko. Zaleen pozak, tristurak, baina, batez ere, ilusioak elkarbanatzeagatik, eskerrik asko. Konfiantza eman didazuen guztiei eta kritikatik

hobea izatera bultzatu nauzuenei ere, eskerrik asko.

Bukatzeke, aurreko bi zuzendaritza taldeei eta, bereziki, hurrengo lau urteetarako elkartearen zuzendaritza kudeatzera konprometitu den lan taldeari, oso jende gutxik hartuko lukeen erantzukizuna hartzeagatik, eskerrik asko eta indartsu mantendu aurrera begira. Honekin batera, eskaera bat zale eta, batik bat, herritar guztiei: babes ditzagun denon artean lan talde honen erabakiak eta, batik bat, elkarte barruko "gorabeherak", ez dezala inondik inora herri bizikidetzatza nahastu. Iritzi ezberdinak zilegi dira bai, baina herri bizikidetzatza zaintzen ez badugu, beste guztiak ez luke inongo zentzurik.

Mila esker denoi bihotzez, eta AUPA ORIO! ■■■■

## HILDAKOAK

- **Oiane Luna Vizcaino. Aian,** abuztuaren 17an. 34 urte.
- **Jose Luis Esnal. Orion,** urriaren 4an. 64 urte.
- **Juanito Iburguren. Orion,** urriaren 4an. 86 urte.
- **Joaquin Mari Arostegi. Orion,** urriaren 5ean. 68 urte.
- **Inaxio Lizaso Azpeitia. Aian,** urriaren 7an. 94 urte.
- **Jone Elgarresta Aguirre. Aian,** urriaren 9an. 89 urte

GUTUNAK: Karaktereak, gehienez: 2.000 (hutsuneak barne). KARKARAK eskubidea du gutuna laburtzeko. KARKARAK ez du argitaratuko izenik gabe datorren gutunik. Egileak hala nahi badu, ezizenarekin argitaratuko dugu; baina beti, guk egilea nor den jakinda. Gutunean norbait aipatzen baldin bada eta pertsona horrek gutunaren egilea nor den jakin nahi badu, KARKARAK esan egingo dio.

Argitaratu nahi diren gutunak KARKARARA bidali daitezke posta elektronikoz honako helbidera: karkara@karkara.eus edo erredakziora eskura ekarri -Orioko edo Aiako Kultur Etxean- edo postaz bidali. Kultur etxea, 20810 Orio

# Egunerokoaz deskonektatzeko zaletasunik ba al duzu?



## JAIONE SOLABERRIETA

"Niri jostea gustatzen zait. Haurra nintzenean amonak eta izebek erakutsi zidaten puntua, kakorratza eta horrelako laboreak egiten, eta jarraitzen dut zaletasunarekin. Nire ama zenak arropa konponketak egiteari utzi zionean, berriz, josteko makina erabiltzen eta lan errazak egiten ere ikasi nuen. Ez dut egunero josten, baina bai askotan, garaiaren eta denbora librearen arabera. Horrez gain, gustatzen zait oinez ibiltzera joatea eta bueltakoan itsasoan bainua hartzea; tamalez, Orioko hondartzan ez dago beti horretarako aukera, askotan itsaso handia egoten delako. Horregatik, beti esaten dut Kontxako hondartza Oriora ekarriko nukeela, kabinak irekita utzi eta urtean zehar bainatu ahal izateko".



## IBAI AZPIROZ

"Nire zaletasun kutuna ehiza da. Aitonari eta aitari esker ezagutu dut mundu hori, eta benetan dut gustuko. 10 urte bete berri hasi nintzen praktikatzen kirol hori, eta urte luzez jarraitu nahiko nuke, natura den bezalaxe errespetatzen eta zaintzen. Esango nuke, gainera, zaletasun izatetik bizimodu izatera igaro dela. Denboraldian zehar astebururo hutsik egin gabe joaten saiatzen naiz nire txakurrek lagunduta; hala ere, beti ezin izaten da. Orain da, gainera, ehiza denboraldia; puri-purian dago. Herriko elkartean bitartez ehiza-postuak zozketatzen dira egunero herrian. Guztiak zerura begira jartzen gara zerbait ikusteko esperantzan. Giro ederra sortzen da ehiza kontuak tarteko: batzuen punteria eta besteen kaleak izaten ditugu hizpide".



## MARIAN LAZKANO

"Momentu honetan nire denbora libre guztia Ostargi elkarteari ekaintzen diot, beraz, esan genezake nire zaletasunik handiena momentu honetan Ostargi dela. Lan asko daukagu hemen, talde asko ditugu: joskintza, kakorratza, umeentzako tailerrak... guztietan oso gustura aritzen gara. Duela urte dezente hasi nintzen josten, osasun arazoak tarteko, garai batean egiten nituen jarduerak utzi egin behar izan nituen, eta hala, gutxinaka hasi nintzen joskintzaren munduan murgiltzen. Gaur egun, denbora asko pasatzen dut Ostargi elkartean, egunean lau eta sei orduren artean izaten naiz bertan. Elkarte batek ondo funtzionatzea nahi badugu, boluntario ordu asko sartzea beharrezkoa da, eta herritar asko jarduten gara horretan".



**bertako**  
igogailuak | ascensores

Benetako orotariko zerbitzua  
**100€-tik/hileko**

**Igogailuen mantentze-lanen eskaintza zorrotzena**  
+2.000 bezerok gugan dute konfiantza  
943 903 450 bertako.eus

# Itxura



GARBIÑE MANTEROLA

**I**txura zaintzea. Dela buruko ilea, dela gorputzekoa. Arropak, oinetakoak, pitxiak. Azkazalak, azala eta abar luzea. Nora Ephroni azkena irakurri diodan liburuak kapitulu oso bat du *Mantenuaz*. Atal horretan idazleak itxurari eskainitako denbora eta diru-inbertsioa zenbatzen du. Ileapaindegira egindako bisitak, azkazal txukunketak, azalaren zaintza...

Lasai, ez bainator zuei betebeharrak bat gehiago jartzera. Zuen denbora preziatua alperrik gastatu behar duzuela esatera. Utzidazue, halere, egunotan izan ditudan burutazioak zuekin konpartitzen.

Oraintsu Miramar jauregian izan naiz Emakundek antolaturiko biltzar batean. *Berdintasuna, zientzia eta teknologia. Paradigma aldatzea helburu*. Eta bertan tailer batean parte hartu nuen: *Itzaletik agertokira*. Zientziaren dibulgazioaz eta, bereziki, komunikazioan emakumearen parte hartzeaz jardun genuen luze eta zabal. Oholtzara igotzean gure itxurak garrantzia ote duenaz hitz egin genuen.

Tailerrean gogora ekarri nuen istorio bat. Eliteko atleta izandako lagun bat dut. Txapelketa baten bezperan esan zidan depilatu beharra zuela. Nik esan nion ez zuela inongo zentzurik.

Harmailetatik inor ez zela konturatuko bere ile ñimiñoez. Argazkilarien zoom erraldioenak ere ez zuela enfokatzetik lortuko. Eta berak ezetz, itxurari zegokionez ahalik eta seguruen joan behar zuela. Depilatu ez izanak ezin omen zuen izan distrazio bat. Eta txapelketa inportanteen atarian distraitu zezakeen faktore oro neutralizatu behar zuela. Alegia, buruan gauza bakar bat izan behar zuela txapelketan zenean: kirol errendimendua.

Irakaslea den beste lagun batek esan zidan lankide batek baino gehiagok buruhausteak izaten dituela zer jantzi erabakitzerakoan. Ez ikasleen aurrean, bai baina ikasturteko lehen guraso bileran. Horrek marka baitezake hilabete askotako erlazioa.

Aitak bukaera arte izan zuen etxetik ateratzean txukuntzeko beharra. Mugitzeko zailtasunak izaten hasi zenean etxe sarrerako txokoa utzi zuen orrazi bat. Kalera atera aurretik ile bakanduari erreposoa eman, sillan eseri eta kalera irteten zen. Amonak ere antzeko. Azkenera arte mantendu eta zaindu zuen bere dotorezia. Izan kalera ateratzean, izan etxean bisitak jasotzean. Abilidade berezia zuen etxeko bata eta lepoko paineluak konbinatzeko.

Fribolitatearekin lotu nahi izan digute. Baina, itxurak badu duintasunetik asko. Dagokigun lekua hartzetik. Tokatzen zaigun hori errebindikatzetik. Plaza hartu eta esan: HEMEN NAGO, BIBA NI.

Azken puntu bat. Ederra litzateke estetika berriak sortzea. Zapatilak modan jarri baditugu, zergatik ez zimurrak ere modan jarri? Ez naiz gure azaletako zimurrez ari, arropetakoez baizik. Gorroto dut plantxa, aboli dezagun. Mantenuerako denbora tartea utziko lidake. ■■■

**FRIBOLITATEAREKIN  
LOTU NAHI IZAN  
DIGUTE. BAINA,  
ITXURAK BADU  
DUINTASUNETIK ASKO**



## Azaroak 30, Greba Feminista Orokorra

**E**uskal Herriko Mugimendu Feminista eta zaintzaren sektoreko langileak egungo zaintza erregimena salatzen eta zaintza lanak demokratizatzeko prozesuak aldarrikatzen dabilta azken hamarkadan. Emakumeon eskubideen defentsak zaintzen krisia eta mendeetako injustizia azalarazi egin ditu, eta argi daukagu sistema honek errotiko aldaketa behar duela. Herritarren zaintzarako beharren eta zaintzeko baliabideen artean desoreka handia dago, eta horren kaltea emakumeok ordaintzen dugu.

Pertsona oro izaten gara bizitzako uneraren batean zainduak, gizakiok zaintzak ezinbestekoak ditugu, eta historikoki emakumeoi egokitutako lana izan da.


Batzuetan baldintza duinik gabeko enplegu bezala egiten ditugu eta, beste batzuetan, gure inguruko bizitzak sostengatzeko, soldatapekoa izan gabe. Argi dago sistema honek emakumeok kaltetzen gaituela, gure aisialdiari, gure zaletasunei eta gure gozamenari denbora kenduz, askotan gure soldatapeko lanak murriztuz eta, ondorioz, soldata murriztuak kobratuz. Gizonek, bitartean, ikasteko, formatzeko, irakurtzeko, harremanak egiteko etab.

**ASANBLADA MISTOAK  
EGITEN ARI GARA  
ORION, GREBA HAU EZ  
DELAKO EMAKUMEONA  
BAKARRIK**

denbora izaten dute. Zaintza lanik ez egiteak boterea ematen du; geroz eta argiago daukagu. Zaintza lanak egiteak, aldiz, boterea kendu. Zaintza lanek ez dute inolako baliorik, ez daude errekonozituta.

Hori gutxi balitz, zaintzaren sektorean lan baldintzak tamalgarriak izaten dira gehienetan; beraz, borroka horretan ari direnekin indarrak batu nahi ditugu. Zaintza sistema guztiz merkantilista, pribatizatua, arrazializatua, prekarizatua dago. Emakume arrazializatuak dira kaltetuenak, paperik ez edukitzean eskubiderik ez dutela argumentatzen baitiete kontratatzaile zuriek. Beraz, zapalduak eta zapaltzaileak, beste behin ere, arrazak eta generoak markatuta daude.

HAUXE BAI JENEROA!





Azaroaren 30eko greba orokor feminista ezinbestekoa ikusten dugu arazoa larria dela aldarrikatzeko, eta honen aurrean instituzioek kontzientzia eta ardurak hartzeko. Greba hori antolatu behar da, eta aurrera atera behar da lantokietan, ikastetxeetan, unibertsitateetan eta baita erakundeetan ere.

Orioko hasi gara antolatzen, Orioko Mugimendu Feministak deituta eta lidergoa hartuta, asanblada mistoak egiten ari gara. Bai, mistoak. Izan ere, greba hau feminista da, baina ez da emakumeona bakarrik.

Bada garaia gizonek ere sistemaren eraldaketan ardura hartzeko eta zaintza sistema publikoa aldarrikatzeko. Zaintzarako eskubidea kolektiboa den bezalaxe, zaintza lanekiko erantzukizunak ere kolektiboa izan behar du.

Ez dugu gure aurka doan erreproduzituko! Bada garaia denon bizitzetan arreta jartzeko. Badakigu batzuen bizitzetan arreta aspalditik jarrita dagoela, bada garaia ahaztuak izan diren horiei kasu egiteko. Batu zaitez grebara! ■■■

## PUNTUA JARRITA

Bertsolaria:

Aizpea Esnaola eta Miriam Garcia

Doinua: Gazteak Lizargatez.

**1**

### Pilliku plazan gaude sarea ehuten

emakume mordoak gabeiltza ahalduntzen akelarre pare bat ai gea montatzen Mari Maestra dakau gure etxea zaintzen

**2**

Borobil borobila herri erantzuna jatorri ezberdinak baitare adina danok beteko dugu irriz eraikina herri feministaruntz (e) inez ahalegina

**3**

Badira aldatzeko beharra dutenak postu garrantzitsuak eta okerrenak berdintasun eskolak falta zaizkienak gizarte aldaketaz gutxi dakitenak

**Hurrengo bertsolaria:**

Ainara Peña eta Eider Salegi.

**Puntua:**

Azaroak hogeitamar greba feminista.



# "Kirola baino gehiago, surfa bizimodua dela esan daiteke"

Gero eta egitasmo gehiago antolatzen dira Euskal Herrian emakumeak surfera gerturatzeko, eta olatu horrek badu eragina Orion ere. Hala, surfaren mundua emakumeen begiradatik ezagutzeko aukera eskaini dute Orioko surf komunitateko lau kidek. Lehena, oraina eta etorkizuna izan dituzte hizpide belaunaldi desberdinetako surflariek.

Testua: **Aiora Larrañaga Solaberrieta.**

Argazkiak: **Arnaitz Rubio Aprea.**





**S**urfean, lehen begiratuan, beste hainbat kiroletan baino neska gutxiago ikusten bada ere, gero eta gehiago dira oholaren gainean olatuak zeharkatzen dituzten emakumeak. 40 inguru dira Orion; guztien iritziz, surfak badu "harrapatzen duen zerbait", eta "kirola baino gehiago" dela sentitzen dute. Osagai horiez guztiez hitz egin dute Orioko surf elkarteko lau kidek Orioko Antilla hondartzan: Leire Valverde (Azpeitia, 1972), Amaia Loidik (Usurbil, 1978), Sonia Zianik (Orio, 1990) eta Maitane Zinkunegik (Orio, 2003).

**Nolakoak izan ziren zuen hasierak surfean?**

**LEIRE VALVERDE:** Nik egin nuen surf ikastaro bat duela 27 urte Zarautzen ireki zuten lehenengo surf eskolan, Mikel Troitiño, Aritz Larrañaga eta Aitor Frantzesena *Gallo*-rekin. Bi asteo oinarrizko ikastaroa izan zen, materiala ezagutu eta kirolarekin lehen kontaktua izateko. Gustatu egin zitzaidan, eta surfean hasi nintzen lagun talde batekin.





Maitane Zinkunegi surfean. UTZITAKOA



Sonia Ziani surfean. UTZITAKOA

Handik gutxira, bizitzak Oriora ekarri ninduen, eta hemen jarraitu nuen uretara sartzen. Hasieran izan nuen lotsa, surfean oso emakume gutxi jarduten ginelako. Gizonezkoen kirola zela zirudien, emakumeok surfean egin ezin bagenu bezala, ez baitzegoen erreferenterik. Nik, ordea, oso ondo pasatzen nuen. Askotan frustratuta ateratzen nintzen uretatik, zeharo txarra nintzela pentsatuz, baina kirolak tira egiten zidan, eta egoskorrean jarraitu egin nuen. Saiatu eta saiatu, hori da sekretua.

**AMAIA LOIDI:** Gu Usurbilen bizi ginen, eta uda Orion pasatzen genuen. Amonarekin egunero hondartzara etortzen ginen umetan, eta niri beti gustatu izan zait hondartza inguruko giroa. 16 urte ingururekin, banituen bi lagun hondartzan

sorosleak zirenak: Mikel eta Andoni. Beraiengatik hasi nintzen surfean. Probatzera animatu ninduten, garai hartan Orion surfean oso neska gutxi jardun arren. Aurrerago, Pukasen hasi nintzen lanean, eta zaletasunarekin jarraitu nuen. Nik uste dut surfaren inguruan hondartzan sortzen den giroa dela gustatzen zaidana; izan ere, neguan ere hona etortzea maite dut; itsasoari begira egotea, lagunekin petrilean eserita berriketan aritzea, eta eguraldia hobetzen denean itsasoan bainua hartzea. Ez da kirola bakarrik, horren bueltan sortzen den bizimodua da. Surfeko lokala nire bigarren etxea bezala da.

**MAITANE ZINKUNEGI:** Nik haurra nintzenetik ikusi dut aita surfean, eta ordu asko pasatu ditut hondartzan. Hortaz, modu naturalean hasi nintzen surfean. Probatzen hasi nintzen, uretara sartzen, eta kirola eta bertako giroa gustatuta, jarraitu egin dut gaur egun arte.

**SONIA ZIANI:** Hemen bildu garen emakumeok belaunaldi desberdinetakoak gara: 20, 45, 33 eta 51 urte ditugu. Surfak eman digu elkar ezagutzeko eta lagun berriak egiteko aukera, eta oso aberasgarria da. Surfaren bueltan oso giro ederra sortzen da, eta ez dut uste kirol guztietan gertatzen denik. Bizimodua dela esan daiteke, kultura eta naturarekiko erlazioa uztartzen dituelako. Gainera, bitxia da, surfeko lokalera etorri gero, beti dagoelako norbait, eguraldi txarra edo ona egin. Etor zaitezke jai eguna duzun lanegun batean, eta bateren bat topatzen da; batzuk uretan, besteren bat ur-ertzean paseatzen edo alboko txiringitoan kafea hartzen.

#### Zer eskaintzen dizue surfak?

**A.L.:** Bizipoza ematen dit hondartzara etortzeak. Hau nire lekua dela sentitzen dut. Gainera, nire alabari asko gustatzen zaio hemen egotea, eta sentitzen dut lotura berezia partekatzen dudala berarekin surfaren bueltan.

**S.Z.:** Surfak askatasuna eta lasaitasuna eskaintzen dizkit. Egunerokoan bizi dugun estresa botatzeko bidea da. Uretara sartzen naizenean arazo guztiak ahazten zaizkit, neure buruarekin lasai eta naturarekin harreman zuzenean egoteko modua delako. Hunkitu egiten naiz, sentitzen dudalako hondartzak jende zoragarria ezagutzeko aukera ere eman didala; oso konexio berezia dut hemen egin ditudan lagunekin. Bestela sortuko ez lirakeen loturak ahalbidetu ditu surfak.

**Neska eta emakume asko erakartzen ditu surfak, baina erreparoa edo lotsa ematen die uretara sartzeak. Zuek ere izan al duzue sentipen hori?**



Leire Valverde olatu gainean. UTZITAKOA



Amaia Loidi haur bati surfean laguntzen. UTZITAKOA

**SONIA ZIANI: "SURFAK ASKATASUNA ETA LASAITASUNA ESKAINTZEN DIZKIT"**

**AMAIA LOIDI: "BIZIPOZA EMATEN DIT HONDARTZARA ETORTZEAK. HAU NIRE LEKUA DELA SENTITZEN DUT"**

**LEIRE VALVERDE: "HEMEN SORTZEN DIREN HARREMANAK BESTE EREMU BATEAN SORTZEA ZAILA DA"**

**L.V.:** Hasieran beldur edo lotsa hori sentitzea normala da, baina iruditzen zait Orion asko babesten dugula elkar.

**S.Z.:** Uretan klubeko mutilek animatu egiten gaituzte olatuak hartzera, eta eskertzekoa da. Behin edo behin pasa izan zait klubera etortzea eta itsasoari begira ari naizela norbaitek galdetzea ea uretara sartuko naizen. Errespetua ematen didala esandakoan, erantzuna izaten da: "Goazen, biok elkarrekin sartuko gara!".

**A.L.:** Bat nator, batzuetan behar da babes hori uretara sartzeko. Ni, esaterako, metro eta erditik gorako olatuak badaude eta bakarrik bago, ez naiz sartzten bakarrik. Izan ere, Orioko hondartza nahiko bihurria da. Hondartza bakoitza desberdina da, baina Oriokoan batzuetan *zentrifugatuan* sartzzen zara, eta gauean oraindik ura botatzen jarraitzen duzu.

**Orio erraza al da surfean hasteko?**

**S.Z.:** Ez da batere erraza. Bat etorri behar dute faktore askok: itsaso txikiak eta apar luzeak. Orion, normalean, korronte handia izaten dugu; marea behean dagoenean bat-batean txikitzen diren olatuak, paretarik gabeak, eta marea goian dagoenean, berriz, ur-ertzeko olatuak. Konplexua da Orion surfean ikasteko olatu onek koadratzea.

**L.V.:** Egia da hori, baina maite dugu, gure hondartza delako eta sortzen den giroagatik. Ni, denboraldi batean, gaztetan, Zarautzen bizi izan nintzen, eta olatuak hartzera Oriora etortzen nintzen, nahiz eta han olatu hobeak egon.

**Hasieran erreferenteak aipatu dituzue. Garrantzitsua al da horiek egotea neska gazteak surfera gerturatzeko?**

**A.L.:** Bai, gazteak beti animatzen ditut probatzera. Gero eta neska gehiago animatzen dira surfera, eta niretzat oso pozgarria da. Nik neuk ere urte batzuetan utzita izan nuen, eta nire alabarengatik hasi nintzen berriz, polita iruditzen zaidalako berarekin zaletasuna partekatzea eta gure artean lotura berezi hori izatea. Duela urte batzuk herriko emakumeen artean deialdia ere egin genuen nahi zuenak surfa probatu zezan. Uste genuen bi katu etorriko zirela, eta 30 emakume inguru bildu ginen. Askok komentatu ziguten oholarekin uretara sartzten ikusten gintuztenean inbidia sentitzen zutela, baina lotsa ematen zuela probatzeak. Giro ederra izan genuen topaketan.

**L.V.:** Egia da, hondartza guretzat hartu genuen; sartu ginen uretara, eta ez zen inor gehiago kabitzen.

**S.Z.:** Oso saio polita izan zen, balio izan zuelako elkar ezagutzeko.

### **Surfa bada kirol bat tematzea eskatzen duena, ezta?**

**S.L.:** Surfak bi alderdi ditu. Hasieran ez da eskertua, saiatu arren asko kostatzen delako zutik jartzea eta, prozesu horretan, askok pentsatzen dutelako ez dutela balio. Baina, zutik jarri eta lehen olatua hartzen denean sentitzen dena, hori ikaragarria da. Horregatik da garrantzitsua gustatzen bazaizu ez etsitzea. Ez da aurrenekoan aterako, baina ahaleginak fruituak ematen ditu.

### **Azken urteetan indarra hartu du Emakumeak Surfilarik ekimenak Euskal Herrian. Uste duzue horrek balio duela emakumeak surfera gerturatzeko?**

**A.L.:** Bai, nik egin nuen beraiekin ikastaro bat, eta emakume mordoak bildu ginen. Aurrerago saiatu nintzen beste talde batean sartzen, baina beteta zegoen. Asko gustatu zitzaidan ekimena, oso giro ona zegoelako.

**L.V.:** Emakumeak Surfilarik arlo desberdinak jorratzen ari da. Antolatzen dituzte teknifikazioak surfilarik gazteentzat, baina horrez gain, emakumeak surfera animatzeko ikastaroak ere egiten dituzte. Udan, esaterako, Galizian surf egonaldiak antolatzen dituzte emakumeentzat, eta nik parte hartzen dut horietan. Asko gozatzen dut, eta aberasgarria iruditzen zait, maila desberdinetako emakumeak biltzen garelako: batzuk maila handiagoarekin eta besteak txikiagoarekin, baina guztiak elkarrekin eta elkarri txaloka eta animoak ematen, inportantea jardutea eta saiatzeari delako. Egonaldi horiek kirola gizarteratzen eta zabaltzen laguntzen dute, eta uste dut emakumeok behar izaten ditugula horrelako pizgarriak. Nik, esaterako, seme-alabak ditut, eta haurrak izan nituenean surfa albo batera utzi nuen. Umeak hazi zirenean eta niretzat aisialdirako denbora gehiago nuenean hasi nintzen nire kasara berriz surfean. Hendaian bizi nintzen orduan, ez nuen inor ezagutzen, baina banuen oinarri bat lehendik, eta zein motatako oholak erosi banekienez, moldatu nintzen. Oinarri edo laguntza hori ez duena, ordea, ez da itzultzen surfera edo ez da gerturatzen. Kontuan izan behar da emakumeoi behin familia izandakoan bizitza soziala aldatu egiten zaigula, tamalez kostatu egiten zaigulako guretzat denbora hartzea. Gizonezkoak horretan desberdinak dira, eta jarraitzen dute beren zaletasunekin. Horregatik, beharrezkoa iruditzen zait espazio ludiko bat sortzea emakumeak surfera gerturatzen laguntzen duena. Oso emaitza onak ematen eta arrakasta lortzen ari da Emakumeak

Surflari, ona edo txarra izan, inportanteena uretara sartzea eta surfaz gozatzea delako.

**S.L.:** Nik uste dut Emakumeak Surfilarik batez ere zaletasuna sortu duela, eta taldean uretara sartzea bultzada garrantzitsua dela emakumeentzat.

**A.L.:** Leirerekin bat nator. Nik ere utzita izan nuen surfa ama izan ondoren, eta alaba koskortu zenean nire alabarekin eta bere lagunekin hasi nintzen berriz ere surf ikastaroetara joaten. Horrela hartu nuen berriz ere martxa. Antzematen dut gero eta jende gehiago ari dela animatzen; badituzte hiru lagun oraintxe hasi direnak eta oso gustura daude. Hasieran, aparra hartzen jarduten gara guztiok, eta zutik jartzea lorpen ikaragarria izaten da, baina gustatzen zaionak gozatu egiten du.

### **Inguruko herrietan badaude surf eskolak, eta horrek, nolabait, kirola asko zabaltzen du. Oriko surf komunitateak, ordea, mantentzen du izaera herrikoia?**

**S.L.:** Surf elkarteko kideok kontziente gara daukagun altxorraz, eta zaindu egin nahi dugu, beste herrietan gertatu dena pasa ez dadin. Izan ere, uste dut surfa prostituitu egin dela. Negozio handia sortu da horren inguruan, eta behin gorpil horretan sartutakoan, non dago muga? Zarautzen asko antzematen da. Uretan egon zaitezke, eta bat-batean talde handi bat sartzen da ezertxo ere jakin gabe. Olatuaren gailurrean sartzen dira, ez dakizkitez surfeko arauak eta nork duen lehentasuna, eta arrisku egoerak gertatzen dira. Kontu handiz ibili behar izaten da. Uste dut behar-beharrezkoa dela ikastaroetan parte hartzen ari diren lagun horiek itsasoan ibiltzeko hezteak, surfean aritzeko ezinbestekoa delako kirolaren arauak eta lehentasuna ezagutzea, eta itsasoa ulertzea, korronteek nola eragiten duten jakitea eta beste hainbat kontu. Ezbehar gutxi pasatzen dira, gerta zitezkeenerako. Orion lan handia egin da egoera horretara ez iristeko, eta klubeko beteranoen ahaleginari esker izan da. Lortu dute herriko surf komunitatearen izaerari eustea eta bertako kideok errespetuz jokatzeari.

**A.L.:** Lortu dugu oreka jasangarri bat, beste hondartzetako masifikaziotik urrun dagoena. Eta arrisku egoerei dagokionez, nik, esaterako, argi daukat noiz sar naitekeen. Itsaso handia dagoenean uretan bezainbeste gozatzen dut petrilean eserita itsasoari begira.

**M.Z.:** Soniaren iritzi berekoa naiz. Itsasoari errespetua izan behar zaio, eta tamalez, gertatzen dira egoera arriskutsuak uretan, nork bere mugak



errespetatzen ez dituelako. Haurren kasuan, gurasoek jakin behar dute noiz dagoen itsasoa emeak sartzeko modukoa. Izan ere, haurrek jakin dezakete surfean, baina oraindik ez dute indarririk korrante handiari aurre egiteko. Duela gutxi haur bat atera behar izan zen uretatik, zeharo beldurtuta eta negarrez. Aitarekin etorri zen: lehen egunean itsasoa egoki zegoen berarentzat, baina biharamunean olatuak aurreko egunekoaren bikoitzak ziren. Azkenean, korranteak haurra arrastaka eraman zuen, egoera arriskutsua sortuz.

#### **Surfa zabaltzeak eraldatu egin al du?**

**L.V.:** Bai, lehen askoz hippyagoa zen. Duela 32 urte, 20 urte nituenean, eskalatzen hasi nintzen. Asko motibatu ninduen kirolak, eta guztiz aldatu nuen bizimodua; asteburuetan parrandan atera beharrean eskalatzera joaten nintzen lagun kuadrilla batekin. Ostiralean irtetzen ginen lo egiteko zakua eta eskaladako motxila hartuta, eta kanpora joaten ginen. Eskaladako lagunekin botatako erronka bati esker egin nuen udan surf ikastaroa, eta hori ere ikaragarri gustatu zitzaidan. Bietan giro bera sentitzen nuen, gizartetik ihes egiteko modua zirela sentitzen nuen. Oso jende irekia zegoen, aurreiritzirik gabea. Gainera, surfaren inguruan ez zegoen negoziorik, oso librea zen, eta abentura pila bat

bizi izan genituen: kanpora joaten ginen motxilarekin; kotxean lo egiten genuen; ahal genuen materiala erabiltzen genuen, hirugarren eskuko oholak erosten genituen edo eskura genituenak erabili. Belaunaldi desberdinetakoak biltzen ginen surfaren bueltan, eta harreman berezia sortzen zen gure artean, ginelako zorakerietarako lagunak. Nik, esaterako, beste kirol antolatukoetan ez nuen horren ondo *enkajutzen*.

**A.L.:** Nire kasuan ere, kuadrillako lagunak ni baino hamar urte zaharragoak dira. Oso gaztea nintzen beraiekin ibiltzen hasi nintzenean, eta surfak elkartu gintuen. Garai hartako oso oroitzapen ederrak ditut, orduan Orioko hondartza zelako askoz basatiagoa eta surfa ere giro horren isla zelako. Oso aberasgarria iruditzen zait belaunaldi desberdinak biltzen dituen gune bat izatea, eta nire alabarentzat ere hori nahi dut, giro naturala eta sanoa iruditzen zaidalako, errespetuzkoa. Bere adinekoekin egon daiteke, haur txikiekin, baita nire lagunekin edo 20 urte inguru dituztenekin ere. Maitanerekin, esaterako, askotan sartzen dira uretara.

**L.V.:** Hemen sortzen diren harremanak beste eremu batean sortzea zaila da, eta horregatik da garrantzitsua da gure izaerari eustea eta dugun altxorrari balioa ematea.

# "Negozio iturria ikusi dute askok, eta marketinaren eraginez, asko aldatu da gizarteak surfarekiko duen jarrera"

**ENARA AZKUE** ORIOKO LEHENENGOTAKO EMAKUME SURFLARIA

Duela hamazazpi urte Euskal Herria utzi bazuen ere, Orioko surf komunitateko kideek gogoan dute Enara Azkue (Orio, 1980), bera izan baitzen Orion surfean aritu zen lehen neska. Azken bi hamarkadetan munduko hainbat herrialde izan ditu bizileku, eta gaur egun Maltaan bizi da oriotarra.

## **Surfean jarraitzen al duzu?**

Ez, bizitzak eramaten gaitu imajinatzen ez dugun bideetatik, eta gaur egun ez dut surfik egiten. Ingeniaritza ikasi nuen, eta 25 urterekin Eusko Jaurlaritzaren beka baten bitartez Egiptora joan nintzen bizitzera, El Cairora. Bertan ez zegoen surfa egiteko aukerarik, eta handik Ekuadorrera joan ginen; ondoren Mexikora, eta gaur egun, Maltaan bizi gara. Bizi izan naizen tokietan ez dut izan olatudun hondartzarik surfean egin ahal izateko. Bizitzak aurrera egin du, eta konturatu gabe urrundu egin naiz surf mundutik.

## **Inoiz pentsatu al duzu zaletasuna berrartzea?**

Udan ama bisitatzera Donostiara joaten garenean, semeak surf eskoletara eramaten ditut. Gustatzen zaie, baina surfak jarraikortasuna eskatzen du, eta urtean bi astez uretara sartuta ez da nahikoa zaletasuna sortzeko. Gainera,

uste dut oso zaila dela seme-alabei gurasoen zaletasuna transmititzea, norberarengandik sortzen den sentimendua delako. Maltaan urez inguratuta bagaude ere, olaturik ez dagoenez, ezin diote udan ikasitako horri segida eman. Uda honetan Donostian egon ginenean, pentsatu nuen uretara sartzea, haurrak surf eskoletan zebiltzan bitartean, baina horrelakoetan beste hainbat gauza izaten dira egiteko, eta azkenean, ez nintzen animatu. Gainera, Donostiako Groseko hondartza goizean goizetik surflariz gainezka egoten da, ez da inor gehiago sartzen uretan.

## **Nolatan hasi zinen zu surfean?**

Oso gaztea nintzen, 12 urte inguru nituen. Eugenio Cotado nire amaren laguna zen, eta oso neska mugitua nintzela ikusten zuenez, 1992ko udan berea zen taula arrosa bat oparitu zidan probatzeko. Jolas gisa hasi nintzen uretara sartzen; baina segituan negua etorri zen, eta neoprenorik ez neukanez, utzi egin behar izan nuen. Hurrengo udaberrian ekin nion berriz ere, eguraldia hobetu zuenean. Ni nintzen uretara sartzen zen neska bakarra; 13 urte nituen, eta gainontzeakoak ni baino askoz zaharragoak iruditzen

zitzazkidan, 17 urtetik gorakoak ziren eta.

## **12 urterekin sentitu al zenuen hasierako beldurrik?**

Ez, saltsa guztietan sartuta ibiltzen nintzen, eta surfa asko gustatzen zitzaidanez, ez nion buelta gehiegirik ematen; lotsarik ez nuen sekula sentitu. Norberaren izaerarekin datorrela uste dut, ni horrelakoa izan naiz beti. Hori bai, aitortu behar dut uretara sartzen ginenean asko kostatzen zitzaidala olatuak hartzea txikiena nintzelako, kar-kar-kar... Neska bakarra nintzen eta gazteena, baina ni beti sentitu nintzen oso babestua. Oso lagun onak egin nituen surfean, eta aspalditik kanpoan bizi banaiz ere, batzuekin harremana mantentzen jarraitzen dut.

## **Nola gogoratzen duzu orduko Antilla hondartza?**

Gaur egungoarekin alderatuta oso desberdina zen, askoz basatiagoa. Hondartza bazterreko txaletak eta txiringitoak zeuden, besterik ez. Aire zabalean aldatu behar izaten genuen, ez baitzeuden aldagelak eta dutxak. Zerbitzu horiek guztiak pixkanaka lortu ziren, elkarteak sortu zenean. Klubaren sorrera hartan nik ere parte hartu nuen, eta hainbat urrats garrantzitsu eman ziren 1990. hamarkadan: federatu



egin ginen, txapelketak antolatzen hasi eta surfeko lokala lortu zen udalaren laguntzarekin. Bizitzako arlo guztiak bezala, oso azkar aldatu da surfa ere. Erosotasunean irabazi da, baina urte haietako esentzia galdu dela uste dut. Gogoan dut asteburuetan goizetan esnatu, eta egiten nuen lehen gauza bizikletan hondartzara joatea izaten zela, olatuak bazeuden ikusteko. Orain, nahi izanez gero, ohetik irten ere egin gabe smartphonetik ikus daiteke itsasoa nola dagoen. Erokeria bat da, lehen pentsaezina zen. Hondartzari dagokionez, asko aldatu zen kanpoko barra egin zutenean. Hala ere, lehen oso itsaso handia izaten zen, eta nahiko zaila zen surfean ikasteko.

**Orain kanpotik ikusten duzu surfaren mundua.**

### **Zertan sumatzen duzu aldatu dela?**

Nire ustez, gizarteak surfarekiko duen ikuspegia da gehien aldatu dena. Lehen oso kirol minorizatua zen, eta surfa egiten zutenak nahiko jende alternatiboa ziren, libreak, garaiko estandarretatik kanpo zeudenak. Surfean etxe bakoitzeko onena aritzen zirela esaten zen. Negozio iturria ikusi zuten askok, ordea, eta marketinaren eraginez, asko aldatu da gizarteak surfarekiko duen jarrera: gaur egun, gurasoak gustura daude seme-alabak surfean aritzen direlako, eta lehen, berriz, inguru horretara ez gerturatzeko eskatzen ziguten. Ni asteburuetan 08:00etan ateratzen nintzen etxetik hondartzara joateko; 13:00etan etxera itzultzen nintzen bazkaltzera, eta

arratsaldean 15:00etatik 19:00etara egoten nintzen hondartzan. Amak galdetzen zidan ea zer egiten nuen horrenbeste denbora hondartzan. Hantxe pasatzen nuen nire denbora libre: uretara sartu, lagunekin berrikerian aritu eta olatuei begira, besteak surfean ari ziren bitartean. Gaur egun, guraso asko seme-alabak etxetik atera ezinik egoten dira, pantailekin engantxatuta daudelako, eta lehen, berriz, ez ginen etxera sartzen. Surfak inguruan duen negozioaz harago, sekulakoa iruditzen zait gazteek surfa bezalako zaletasuna izatea, lortzen delako belaunaldi desberdinen arteko esperientziak trukatzera, kirola eginez eta naturarekin erlazio zuzena izanez.



## JASO ETA EMAN, BORONDATE OSOZ

Horren aztoratuta dabilen mundu honetan, bada bestelako ikuspegi bat duen jendea. Daukatena eta dakitena besteekin musu truk partekatzeko prestutasuna dutenak. Hainbat herritar daude eskualdean modu boluntarioan eskolak eskaintzen edo ikasketetan nahiz euskaraz hitz egiten trebatzeko laguntza ematen. Horietako batzuk dira Mari Jose Iparragirre oriotarra, Imanol Agirre azpeitiarra eta Zarauzko Ikaslagún egitasmoa.

Testua: Aritz Mutiozabal. Argazkiak: Aritz Mutiozabal - Intza Trula





Ikasturte hasierarekin batera, bateko zein besteko ikastaroen zurrunbiloan harrapatuta geratzeko ohitura du gizarteak. Futbol, saskibaloia edo judo eskolak, musika eskoletako klaseak, ingeles akademiak eta euskaltegiak, kiroldegietako edo gimnasioetako saioak, artegintzan trebatzeko aukera ematen dutenak... Eskaintza oparoa bezain andana dago, baina dena ez da arrosa kolorekoa. Tarifen zenbakiekin malabarrak ere egin behar izaten dira maiz; batik bat, ikastaro batean baino gehiagotan izena ematen badu norbanakoak eta, are gehiago, familia batek. Beste batzuei, haien errealitatea bestelakoa delako, askotan ezinezkoa zaie halako aukerez baliatzea.

Aitzitik, badira inolako irabazi asmorik gabe, borondate hutsez eta boluntarioria lana eginez, behar gehien dutenei klase partikularrak ematen dizkietenak, mintzalagun izateko beraien buruak aurkezten dituztenak, margogintza eta eskulanak hurrei erakusteko pasioa dutenak, gitarra jotzen edo jostintzan trebatzen irakasten dutenak eta abar. Edozein herritan dago ezer eskatu gabe laguntzeko prest dagoen jendea. Beste mundu ikuspegi bat dute, gero eta berekoiagoa eta konsumistagoa bihurtu den honen ifrentzua dira. Jaso eta eman, eman eta jaso, eta horrela, kateak eten gabe iraun dezan. Boluntarioen jardunari balioa ematen dioten herritarrak dira.

## ARTERAKO PASIOA HELARAZTEN

### MARI JOSE IPARRAGIRRE



Bokazio handiko artista da Mari Jose Iparragirre (Orio, 1954). Sortzaile geldiezina izateaz gain, borondate itzela du. Margogintzan Iñigo Ormazabal eta Javier Sagarzazurekin trebatu ondoren, bere kabuz ekin zion bideari. Herritar batek komentatu zion Iparragirreri seme-alabak gustura eramango zituzkeela margotzen ikastera, baina Orion marrazketa eskolarik ez zegoela. "Zure aitonak niri fabore bat egin zidan bere garaian, eta oraingoa nik egingo dizut faborea. Horrela ados geratuko gara", erantzun zion.

Hala, Rosa Esnalek eta biek joskintzan aritzen ziren eta arropa konponketak egiten zituzten lokal txikian hasi zen eskolak ematen: aurrena seme-alaba haiei, baina berehala handitu zen taldea, haien lagunak ere interesa erakutsi zutelako. "Nola esango nien ezetz! Nik nire garaian horrela aukerarik izan banu, gustura asko joango nintzatekeen. Beraz, umeei etortzeko esaten diet". Kontua da horrenbeste

lagun animatu zirela, ezen lokaltxo hartan ez zirela denak kabitzen.

Alabak eta suhiak zeukaten lokal handiago batera lekualdatu zen, Salatxo ondora, eta bi ilara mahai jarrita atondu zuen espazioa. "Egunero norbait berria etortzen zitzaidan, eta nik esaten nion: 'Beno, zuretzako ere egingo dugu tokia!' ". Dozena bat urte eman zituen bertan "oso gustura", eta, gainera, sortzen zituen eskulanekin erakusleihoan egundoko "muntaiak" egiten zituela dio Iparragirrek: "Askotan tematikoak izaten ziren, eta herritarrak ikustera bertaraten ziren". Behin etapa hori igarota, klaseak emateari utzi zion, baina berak jardunean jarraitu zuen.

Aldi horretan egindako lanekin erakusketa zabaldu zuen Gure Txoko tabernaren eta litxarrerria denda arteko lokalean. Ikustera joan ziren haurrak ea jada zergatik ez zuen eskolarik ematen galdezka hasi zitzaizkion, baita gertuko bat ere. "Pena eman zidaten, egia esan". Gertuko zuenari larunbat batez lokalera joateko esan zion, eta berriro ere ahoz aho zabaldu zen berria: "Berriz etortzen hasi ziren, eta haiek ikusita, beste batzuk ere animatu egin ziren, lehen ibilitakoak zirela eta jarraitu nahi zu-



tela esanez. Horrela hasi nintzen berriro ere, eta jada bi urte goaz".

Lokal txikia duen arren, "ezezko" hitza ez da ageri bere hiztegian: "Umeei erakutsi egin behar zaie, jakin-min hori baldin badute". Berehala hunkitzen dela dio, sentsibilitate artistikoa duen seinale, eta haurrak arte mundura zaletzea du helburu; izan ere, "egungo jendea oso lotuta dago *makinitetara* eta mugikorretara, eta hori ez zait batere gustatzen".

Eskolak ematen ditu, borondatearen truke: "Zenbat den galdetzen didate gurasoek, eta nik lasai ibiltzeko erantzuten diet. Lehen gutxi eskatzen nuen, lokala behean genuenean, gastuak ordaintzeko esaten dena; baina hemen ez dut ezer eskatzen". Kaxa gorrixka bat du, nahi duenak bere ekarpen ekonomikoa egin dezan. "Iruditzen baldin bazaie dirua jasotzea merezi dudala, kaxan bertan sartu eta kito. Ni ez naiz jabetzen zenbat ematen didaten. Are gehiago, ez diet ezer aurpegiatzen".

Arraroa da gisa horretara funtzionatzea, eta Iparragirre bera ere kontziente da. "Ikastaro guztietarako ordaindu egiten da gaur egun, baina nik neure buruari esan nion: ordubetez aritzeko hiru hurrekin, zertan hasiko naiz tarifa bat jartzen. Beharrik ez dudanez, diferentea da". Oraindik hasiera-hasierako lehen ikasle haiek topatzen ditu kaletik, eta "agur Mari Jose!" agurtzen dute. Batzuen izenak berehala gogoratzen ditu, eta besteenak, berriz, gerora etortzen zaizkio akordura. "Kasu egiten didaten guztietan sekulako poza ematen didate. Horrek esan nahi du gustura ibili zirela nirekin. Asko balio du niretzat".

**"Egunero norbait berria etortzen zitzaidan, eta nik esaten nion: 'Zuretzako ere egingo dugu tokia!'"**

**"Ordubetez aritzeko hiru hurrekin, zertan hasiko naiz tarifa bat jartzen. Beharrik ez dut eta diferentea da"**

## IKASKETETAN AURRERA EGITEKO IKASLAGUN



2016an jarri zuten lkaslagun egitasmoa martxan Zarautzen, aurretik Donostian ekin zioten eredu kontuan hartuta. Gizartea aldatzen ari zen eta arazo edo egoera berriak sortzen ari ziren: familia migratzaileak, desegituratuak, pobretuak... Ondorioz, hezkuntza aldetik haurrak atzean geratzen ari ziren, etxeko giroa haiei laguntzeko moduan ez zegoelako. Orduan erabaki zuten eskola partikularrak ematea dohainik, ikasketetarako laguntza behar zutenei eta aparteko laguntzarik ordaindu ezin zutenei. "Ildo beretik, guk erabaki genuen gauza bera egitea Zarautzen", kontatu du hastapenetatik dabilen Marije Zumeta (Zarautz, 1953) irakasle jubilatuak.

Kide batzuk elkartu ziren hasiera hartan, eta orain, urtero-urtero elkartzen dira ikasturte hasieran dena programatzeko. "Boluntarioak gara denak, batzuk irakasle ibilitakoak, eta

beste batzuk, berriz, ez". Astean hiru egunetan klaseak ematen hasi ziren, eta gaur egun ia egunero ematen dituzte, astelehenetik ostegunera. "Boluntarioak nahi dutenean etortzen dira, eta horren arabera, haurrak mailaz maila banatzen ditugu. Ordubetez aritzen gara haiekin etortzen diren aldiro", zehaztu du.

Zumetaren esanetan, "haur bati eskolan etxeko lanak jartzen baldin badizkiote eta etxean egiteko aukerarik ez badu, eskolara jada kezkatuta joaten da. Eginda eramatea sekulako lasaitasuna da berarentzat, eta gure laguntzaz egin ditzake. Era berean, euskarari dagokionean batik bat, etorri berria delako, laguntza ematea, berekin hitz egitea eta pixkanaka aurrera nola egiten duen konturatzea da helburua".

Ikasturte hasieran ikastetxe guztietara joaten dira. "Jada ezagutzen gaituzte, baina hemen gaudela gogorazten diegu. Hortik aurrera,

irakasle bakoitzak bere gelan zerrenda bat egiten du gugana etortzeko beharra luketene-kin, eta zehazten du zertan lagun diezaiok egun. Ondoren, gurasoek hartzen dute gugana ekar- tzekeo ardura. Ikastetxeak erabakitzen du zein haur datorren Ikaslagunera; gu horretan ez gara sartzen".

### Edonor boluntario

Irakasle ohiek ekin zioten Zarauzko Ikaslagun egitasmoari, baina badira irakasle izan ez diren jubilatuak ere, eta baita irakasle ez direnak eta ikasi nahi dutenak, eta ezagutzen ari direnak. "Boluntarioak eskatzen ditugu, gogoia dutenak, eta benetan esan dezaket, esperientzia polita dela. Hasieran egokiena iruditu zitzaigun jubila- tuak etortzea laguntzera, baina gaur egun, hori ez da beharrezkoa: magisteritzako ikasleak, jubilatu gabeak... edonor etor daiteke".

Boluntariotzaren itsasoan murgiltzeko gogoz batu zen Itxaso Azkue (Zarauz, 2006) duela urtebete, Ikaslaguneko kideen artean gazteena. "Boluntario izan nahi nuen, eta Internet bi- dez bila aritu nintzen zer auke- rak zeuden herrian. Niri haurrak asko gustatzen zaizkit, eta Ikaslagun egitas- moaren berria irakurri nuen Hitzako albiste batean. Egitasmoa arduradunekin harreman- etan jartzeko posta elektronikoa ageri zen han; bertara idatzi nuen galdezka, eta horrela hasi nintzen guztia". Batxilergoko bigarren mailan dabil oraindik Azkue, baina argi dauka magisteritza ikasi nahi duela.

lax ekin zion ikaslagun izateri, eta ziur da bi- zitzen ari den esperientzia baliagarria izango zaiola. "Ume bati laguntzen egon nintzaion euskararekin, eta oso-oso gustura aritu nintzen". Lan taldean oso giro ona topatu duela nabar- mendu du: "Denak laguntzeko prest daude, eta edozer gauza komentatu dezakezu. Esate- rako, Marijek kontatu dit Orokietan matemati- ka beste modu batera ematen hasi direla, eta horrela, gauza berriak ikasten ditut".

Boluntario bakoitzak erabakitzen du zer egu- netan joango den laguntzera, eta zer maileta-

ko ikasleak hartuko dituen. "Hala, bi lagun- en artean hartzen ditugu lauzpabost ikasle, edo batek hartzen ditu bizpahiru. Ikaslagunen bes- te helburua da ahalik eta haur gutxien edukitzea bakoitzak, lan pertsonalizatua egiteko haiekin. Batzuk etxeko lanekin etorririko dira, eta beste batzuk beste behar batzuekin, baina, azken finean, denei modu zuzenen lagundu nahi diegu", azpimarratu du Zumetak.

### "Pila bat jaso"

Izandako ikasleak bide onetik jarraitzen dutela ikusteak "asko asebetetzen" ditu Ikaslaguneko kideak. "Izugarria da kaletik zoazela haurrek eta gurasoek nola agurtzen zaituzten ikustea. Sekulakoa da, esaterako, LH5en izan zenuen norbait DBH4n ongi dabilela jakitea. Horrek zirrara berezia sortzen dizu. Zerbait emango dugu, baina pila bat jasotzen dugu trukean. Hori oso garbi dugu boluntario jendeak", dio, hunkituta, Zumetak. Ikasketetan atzean gera ez daitezen, aurre- ra egiteko tresnak ematen diz- kie Ikaslagunek bertaratzen diren haurrei. Hori da, azken finean, egitasmoaren xede na- gusia: "Ez dakit beti lortu izan

dugun, baina ematen beti ahalegindu gara. Ez daitezela geratu beraien eskolako martxa jar- raitu ezinik, horrek asko markatzen baitu ge- rora".

Une honetan, dozena bat lagun dabilta bo- luntario Ikaslagunen, eta beste bi ere espero dituzte epe laburrean. Edonola ere, gogoratu dute hemezortzi zirela egitasmoarekin hasi zi- renean, eta kopurua murriztu egin dela. Hori horrela, jendea beraingana batzeko deia egin dute: "Gutxienez, bertaratu, ikusi zer egiten dugun, probatu arratsalde batez, eta animatzen badira, ongietorriak izango dira". Haien esan- etan, gero eta beharrezkoagoa da: "Pozik etortzen gara eta pozik joaten gara, eta astean ordubete ez da horrenbeste. Azken finean, bakoitzak eman dezakeena da gakoa". Zarauz- ko Ikaslagun egitasmoarekin harremanetan jarri nahi duenak [marijezumeta@gmail.com](mailto:marijezumeta@gmail.com) posta elektronikora mezua bidal dezake.

**Ikasleek bide onetik jarraitzen dutela ikusteak "asko asebetetzen" ditu Ikaslaguneko kideak**

# BOLUNTARIOTZA AISIALDIA BAILITZAN

## IMANOL AGIRRE



Boluntariotza zainetan darama Imanol Agirrek (Azpeitia, 1952). Beretzat ez da behar bat, plazera baizik, nahiz eta askorentzat zaila den kontzeptua ulertzea. Filosofia horrekin ekin zion mintzalagun izateari. Duela zortzi urte bilkura zabala deitu zuten Sanjuandegi auzoan, eta Jon Maia ekarri zuten espresuki hitzaldia eskaintzera. "Batzar hartara erdaldun jendea gonbidatu genuen, eta gure helburua izan zen hortik talde batzuk sortzea, lehendik euskara pixka bat menderatzen zuten jendearekin", kontatu du. Egitasmo hark "arrakasta polita" izan zuen, eta "nahiko hunkigarria" izan zela du gogoan. "Hortik sortu zen mintzapraktika taldea".

Bereziki, aspalditik herrira etorritako erdaldunak eta euskaraz zerbait ikasi zutenak animatu ziren: eroso sentituko ziren giroan ikasi nahi zuten euskaraz, gramatikarik gabe eta euskaltegira joan gabe, hizketaldien bidez. Horiez gain, titulua atera nahi dutenak ere gehitu zaizkie gerora. Hala, maila ezberdinetako bost bat talde elkartzen dira egun, euskaldun berriak euskaldun zahar edo bidelagunekin, tabernaren, kafetegiren edo lokal batean, elkarrekin euskaraz aritzeko.

"Gehienak dira etxean eta inguruan euskara praktikatzeko arazoak dituztenak, baina nahiko maila ona daukatena. Maila antzekoa dutenak elkarrekin jartzen ditugunez, nahiko erraz egiten dute, eta euskaldun zaharraren papera izaten da katigatzen diren momentuetan laguntzea, giro on bat sortzea eta asteburuan egin dutenaren inguruan solasaldi bat dinamizatzea"; horrela eman du beraien jardunaren berri Agirrek

Azpeitiarra koordinatzaile lanetan aritzen da, eta bere ardurak da taldeak osatzea eta jendea animatzea. "Nik neuk ere taldetxo bat eramaten dut, eta iruditzen zait oso ekimen ederra dela. Gustuz egiten dut, eta aisialdi moduan kontsideratzen dut. Ez da zama bat, inolaz ere. Oporretara edo norabait joan behar dugunean, beste norbaiten esku uzten dugu taldea, eta ez da arazorik izaten".

Aisialdia bai, baina "besteei euskara irakaste hutsa eragingarri da guretzat". Azpimarra berezia egin du horretan, gainera: "Guretzat pozgarria da jende horrekin solasaldiak egitea euskaraz. Azken finean, gauza polita egiten dugu. Ez da lan bat guretzat, aisialdiko ekintza bat bezala baita, eta gainontzeko ekintza bo-



luntario guztiak ere horrela ulertzen ditut. Ez da derrigorrez egiten duguna, gustu handiz baizik".

Bere iritziz, lan boluntarioak horrela izan beharko luke: "Bakoitzak bere militantziarekin edo eman dezakeena emanda, baina gehiagō eskatu gabe, eta geure artean harreman ona izanda. Azken finean, ondo pasatzera joaten gara mintzapraktiketako saioetara". Euskaldun berriek ere asko estimatzen dutela nabarmendu du, elkarrekin denbora tarte eraginkorra partekatzen dutelako. "Horregatik jarraitzen du egitasmoak".

### Elkarrekin, batera

Agirreraren boluntariora grina ez da horretara mugatzen, Elkar-ekin taldean ere buru-belarri baitabil. Duela hamar bat urte sortu zuten elkarte, zegoen "egoera prekario eta kritikoaren ondorioz, beharrik gehien zutenei erantzun bat emateko asmoz". "Hasi ginen arropa banatzen, gauzak banatzen, eta, pixkanaka-pixkanaka, bigarren eskuko denda bat bihurtu da. Izatez, bi denda dira: bata arropena, eta bigarrena, materialena", aditzera eman du.

Denda bakoitzean langile bana duten arren, boluntario talde finko bat dute asteroko martxa eramateko, eta gero, 70 lagunekoko talde zabal bat dute, bi hilabetetik behin parte hartzen dutenak. "Horrela, sei hilabeterako pertsonala bermatuta izaten dugu denda zabalik edukitzeko". Ateratzen duten diruarekin hainbat eratako ekintzak antolatzen dituzte: herriko prekarietateari eta migratzaileen egoerari buruz gizartea kontzientziatzeko, migratzaileak euskalduntzeko eta abar.

"Horrez gain, udalak behar gehien duten familien zerrrenda pasatzen digu, eta 80 bat familiari arropa ematen diegun doan, udazkenean zein udaberrian. Gainerakoan, gure dendetan euro batera edo birā, edo behintzat oso merke, jartzen ditugu gauzak salgai, eta hortik lortzen duguna gure ekintzak antolatzeko erabiltzen dugu. Konfiantza daukagun elkartasun proiektuetara ere bideratu izan dugu dirua". Orenen gaintik, dendek ongi funtzionatzearen gakoa "boluntariora lan handiari" dela azpimarratu du. ■

**"Ez da lan bat, aisialdiko ekintza baizik; beste ekintza boluntarioak ere hala ulertzen ditugu"**

**"Hasi ginen arropa eta gauzak banatzen, eta, pixkanaka, bigarren eskuko bi denda eraiki ditugu"**



# Jokoen atzean dagoen mundua

Bideojokoen mundua zaletasun dutenak asko dira; ez, ordea, hainbeste, hori ogibide bihurtu dutenak. Aian bada teknologia hori gertutik ezagutzen duenik: Eneko Osia bideojokoen programatzailea da. Munduko hainbat herrialdetan bizi izan da, eta hainbat motatako bideojokoak sortzeko proiektuetan parte hartzeko aukera izan du. Bere habia bilatu du orain, Aian.

Testua: **Andrea Zipitria**. Argazkiak: **Andrea Zipitria eta utzitakoak**.





**B**ideojokoek gizartean arrakasta handia dutela gauza jakina da. Baina, zer dago bideojokoaren munduaren atzean? Noski, zailtasunik ez du bideojoko bat zer den galderari erantzuna emateak, edonon baitaude: smartphonetan, tabletetan, kontsoletan, webean, telebistan... Aldiz, gauza konplikatu egiten da bideojokoak nola egiten diren pentsatzen hastean. Ordenagailuko lan astuna etorriko zaie batzuei burura, eta urruti ikusiko dute beste batzuek mundu hori. Bada hori gertutik bizi duenik, ordea, Aian bertan: Eneko Osia iruindarra. Bideojokoaren sorkuntzan egiten du lan, hau da, programatzailea da. "Lan asko dago atzetik", azaldu du Osiak: "Departamentu asko daude, eta ni programatzailea naiz. Hobeto ulertu ahal izateko, esan genezake pantaila beltz batean letrak idazten ditudala, eta gero ordenagailuak hori ulertzen duela, eta prozesu horren bidez eta beste batzuek tarteko, sortzen direla bideojokoak. Artistek pisu handia dute bideojokoak sortzeko prozesuan; horiek marrazkiak irudikatzen dituzte, eta mota askotakoak daude; 2D edo 3Dan lan egiten dutenak, adibidez. Produksioa ere bada lana".

Gutxi dira horretan jarduten dutenak Espainia mailan, bideojokoaren industria ez dagoelako beste herrialdeetan bezain garatua Osiaren aburuz. Eta, horregatik, zailtasunik izan ditu bere jarduna Euskal Herritik bertatik egiteko. Kontatu du biologoa izan nahi zuela hasiera batean; bere ametsa animaliekin lana egitea zen, baina, nonbait, batxilergoko ikasketak egiten ari zenean biologiako



irakaslearekin ez zuen batere konplizitaterik sentitu, eta mundu hori aparte uztea erabaki zuen. Batxilergoa amaituta, ez zen unibertsitatera joan. "Zerbait praktikoagoa" egin nahi zuen, eta justu momentu hartan lehengusu bat programazioa ari zen ikasten eskola pribatu batean. Hala oroitzen du ikasketen etapa hura: "Lehengusuak erakutsi zidan zer ikasten zuten, eta asko gustatu zitzaidan. Eskola horrek Ingalaterrako eskola batekin hitzarmen bat zuen hango ikasketak emateko; unibertsitateko ikasketak baino askoz praktikoagoak ziren. Hara joatea pentsatu nuen. Hura bukatzean, titulu ingeles bat zenez, aukera eman zidaten Ingalaterran urte bat gehiago egin eta lizentziatura ateratzeko. Nik etxetik joan nahi nuen, eta aitzakia ona izan zen hura. Urteetan lana egin nuen dirua aurrezteko, eta Ingalaterrara joan nintzen. Ikasketak urte batean osatu beharrean denbora gehiago nahi nuen egon etxetik kanpo, eta bi urtez egon nintzen Ingalaterran. Programazioaren eta internet

munduaren inguruan ikasi nuen han: Software ingeniari eta interneten teknologia".

### **Bideojokoak: onak edo txarrak dira?**

Datorren otsailean kaleratuko du, "zortzi urteko lanaren ondoren", proiektu berria. Hain zuzen ere, *Suicide Squad* izeneko joko bat estreinatuko dute, plataforma guztietan erabili ahal izango dena. Helduen aisialdirako sortutako joko bat da, eta 241 langilek dihardute proiektu horretan lanean.

Ildo horretatik, Osiak jakitun da bideojokoaren inguruan eztabaida ugari sortu dela azkenaldian, eta bere iritzia eman du gaiaz. Bideojokoak onak ala txarrak dira? Askotan errepikatzen da galdera hori, eta Osiak argi du: "Askok bideojokoak konnotazio negatiboarekin ikusten dituzte, baina ez da hala. Esan daiteke bideojokoak arriskutsu bilakatzen direla dependentsia eragiten duten momentuan; erabiltzaileen bizitza bideojokoaren bueltan eraikitzen denean".

Alabaina, kontuan izan behar da, Osiaren ustez, gaur egungo gazteak gizarteko "beste egoera batean" jaio direla. "Gurekin alderatuz, ohituta daude pantailak erabiltzera egunerokotasunean; horrek ez du esan nahi okerragoa ala hobea denik. Kontua ez da gazteei erakargarri zaien elementu bat debekatzea; bideojokoez goza dezatela, baina neurri egokian".

Ezberdintasunak ere badira bideojokoaren barruan: "Batzuk aisialdirako diseinatzen dira eta, beste batzuk, haurrentzako batik bat, hezkuntzarako. Azken horretan etika kontuak hartu behar dira kontuan", nabarmendu du. Horregatik, bideojokoak gazte askoren egunerokoaren parte direnez, "teknologiaren gaineko heziketa"

**URTE ETA ERDI  
DARAMA OSIAK AIAN;  
INGALATERRAKO  
ENPRESA BATENTZAT  
EGITEN DU LAN**

**ZORTZI URTEKO  
LANAREN ONDOREN  
KALERATUKO DU,  
OTSAILEAN,  
BIDEOJOKO BERRIA**

beharrezkoa dela uste du Osiak, "erabiltzaileentzako, baita erabiltzaile ez direnentzako ere".

### Mundu zabaletik, Aiara

Eta, nola bukatu duen Aian? Galdera horren erantzuna luzea da programatzailearentzat. Ingalaterrara joan ondoren, izan ere, hamaika lekutan ibili da munduan zehar, eta tartean, Danimarkan eta Bartzelonan igaro ditu hainbat urte. Gogoan ditu bere lehen esperientziak programatzaile gisa, bideojokoetatik urrun: "Bartzelonako aholkularitza enpresa batean hasi nintzen lanean, eta bat-batean, bizitza aldatu zitzaidan: trajearekin joan behar izaten nuen lanera, ez nengoen ohituta. Segituan konturatu nintzen ez zitzaidala hori gustatzen, eta lanez aldatu nuen. Bigarren lan horretan bankuentzako egiten genuen lan. Hasieran ondo, gustura ibili nintzen, herrialde asko ezagutu nituen, baina ez zitzaidan lan garbia iruditu", azaldu du. Horren aurrean, aldaketa baten beharra ikusi zuen Osiak. "Eseri eta pentsatzen hasi nintzen, ea benetan zer zen gustatzen zitzaidana", eta ondorio zehatz batera iritsi zen: "Bideojokoak nituen gustuko". Hortik aurrera, bideojokoaren industrian egin du lan, eta hainbat urtetan atzerrian ibili eta gero, Euskal Herrira itzultzeko nahia piztu zitzaion. "Kasualitatez" bukatu du Aian. Aurrez uda askotan Zarautzera etortzen zen Iruñatik, baina Aia ez zuen ezagutzen. Interneteko iragarki bateko etxebizitza bat gustatu, eta hala ailegatu zen bertara. Egun, bertatik jarduten du bideojokoak sortzen, nahiz eta lana Ingalaterrako enpresa batentzat egin. ■■■

## KONTZERTUA **Gari&Maldanbera**

azarook 10, **OSTIRALA**, 22:00 Sutegi



## ANTZERKIA **Kanpora sartzen**

azarook 11, **LARUNBATA**, 20:00 Sutegi



Usurbilgo Udala

## KONTAKIZUNA ETA TERTULIA **Usurbil borobil erriotan dabil**

azarook 12, **IGANDEA**, 18:00 Sutegi

Sarrerak: aldez aurretik salgai [usurbilkultura.eus](http://usurbilkultura.eus) plataforman.

Bazkideek prezio berezian eskuratu ahal izango dute sarrera bat Noaua!ko egoitzan.

**NOAUA!KO KULTURALDIA 2023** **USURBIL AZAROA**



# Palestina libre



ARATZ MADARIAGA

**O**ihu egin nahi dut, baina kaleek nekez onartzen dute oihua, norbera ez bada eskuko hatzak atearekin harrapatzen dituen. Garrasi egin nahi dut, baina isilaraziko dute oihartzuna, nork daki zeinek gustuko ez badu. Adarretatik ihesi nabilela dirudi agian, baina kontrari, esandakoak gizartean enbortuegiak ditugula sentitzen dut. Solidaritatea geroz eta gehiago epaitzen da, eta garrasien oihartzuna nahieran manipulatu. Palestinatik datozen berriek eztarrian korapiloa sortzen digute askori. Hortik, nire hitzak.

Hamasek burututako erasoak mundu osoko komunikabideetan sekulako uholdea eragin du. Israelek zauriak erakutsi dizkio munduari eta bere burua defendatzeko eskubidea duen herrialde demokratikotzat aurkeztu zaigu. Palestina begi bistan jarri zaigu, bai, baina Israel suertatu delako kaltetu. Tamalez, gatazka honek ongi beteta zuen lehenagotik ere hazka, sufrimenduz, lehertutako amets eta malkoz. Ez gabilta urrun, beraz, gerra guztietako lehenengo biktima egia bera dela esaten dugunean.

Israel eta Palestinaren artekoa ez da atzo goizekoa. 1896an Theodor Herzl aktibista sionistak *El estado Judio* txostena kaleratu eta urtebete beranduago ospatu zuten Lehenengo Kongresu Sionista. Bertan, etorkizuneko estatu juduaren eraserki eta bandera erabakitzeaz gain, kokapenez ere hitz egin zuten. Argentina, Uganda, Chipre, Mozambique eta Texas bezalakoak proposatu zituzten, azkenik Palestinan burutuko zenaren aukera gisa.

1933an Havaara Akordioa sinatu zen nazien eta munduko erakunde sionista nagusiaren artean. Hala, estatu propio bat osatu nahi zuten juduei,

sionistei alegia, Palestinara emigratzen lagunduko zien erregimen naziak, ekonomiaz ahulduta zegoen Alemania diruz hauspotzearen truke. Gainera, estatu propioa osatzeko xedearekin entrenamendua jasoko zuten gazte sionistek, Alemaniako SA indarren eskutik. Holokaustoa etorri zen gero, Europan geratu ziren juduenganako genozidio basatia. Historialarien arabera, akordioaren onuradun nagusietako bat, zeharka, Zyklon B, juduak erailtzeko erabili zuten gasa fabrikatu zuen enpresa izan zen. Ezin esan erregimena finantzatu zuten juduek etorriko zenaren berri zutenik. Baina, egun, esan daiteke,

akordio horretan aurkitu zituztela sionistek Palestinan estatu propioa osatu ahal izateko hegala eta bertan genozidioa burutzeko atzaparrak.

Bigarren Mundu Gerraren ostean jaio zen Israel, NBEren onarpenarekin. 75 urte, Israelgo estatu terrorista Palestinaren odolustea, heriotza eta umiliazioa gauzatzen, faxismoa

eta supremazia zuria gorpuzten. "Giza animalien aurka borrokatzen ari gara eta honela jokatu dugu". Horiexek Israelgo Defentsa ministroaren hitzak duela egun gutxi, ireki baitituzte berriz ere infernuko ateak nazien garaiko kontzentrazio gune izan zitekeen Gazan. Ez diezaiogun utzi genozidioa salatzeari, oihuz eta izerdiz.

Utzi diot, beraz, idazteari, oihartzuna isilarazten saiatuko diren arren, munduko eztarrien garrasi solidariora batzeko, amestuz zapaldutakoen mina bukatuko dela noizbait, izotza urtzen den moduan, ezer ez baita betiko. Zapaltzaileak konturatuko baitira aitortu ezin den hura izan zirela, kontatu ezin den hura, baina, inoiz ahazten ez dena. Zuegatik...Palestina libre!

## PALESTINATIK DATOZEN BERRIEK EZTARRIAN KORAPILOA SORTZEN DIGUTE ASKORI. HORTIK, NIRE HITZAK

# LEHIAKETA

## NIN DAGO? KARKARA?

**Aurkitu** Karkara pertsonaia aldizkarian.

Erantzuna **orio@ukt.eus** helbidera

**azaroaren 20a** baino lehen.

**Saria:** K5 Txakolina kaxa bat.

Karkara Komunikazio Taldean **bazkide** izatea da baldintza bakarra.



47. orrialdean  
zegoen ezkutatuta

**Nieves Arruti**


bazkidea izan da irabazlea.

## GUKA GARA!

Ni eta zu batzean  
nola sortzen den gua  
Ni eta zu solastean,  
komunikazioaren sua  
Su hori herrira zabaltzea  
hedabideon sekretua  
Txikiak batzean handi  
bilakatzen da bozgorailua  
Bat eginda ere,  
herriari eginez keinua  
Haziz eta haziz dihoa  
euskal hitzen putzua  
Beti-betikoak gara,  
hau duzu heldulekua  
Guka aritzea ez baita  
hain zeregin konplexua  
Horrela kolektiboagoa da  
guztion bizimodua

### **Idazlea:**

Ihintza Elustondo



# "Oinarrizko hizketaldietan euskaraz komunikatzen saiatuko naiz"

CHAIMAE OULADMHAND EUSKARA IKASLEA

## TESTUA: NADETH ARRUTI

Zaragueta Herri Eskolako Ubera guraso elkartearen kezka baten harira, aurten ikastetxeko guraso ez euskaldunei euskara eskolak ematen hasi dira AEKko kideak, eta proiektu horretan parte hartzen ari da Chaimae Ouladmhand marokoarra, ikasle gisa.

### Zenbat urte daramatzazu Euskal Herrian? Zerk ekarri zintuen hona?

Ia 11 urte daramatzat Euskal Herrian. Maitasunak ekarri ninduen hona: unibertsitatean zuzenbide ikaslea nintzen maitasunak nire atea jo zituenean. Maitemindu, ezkonda, eta 2012an etorri nintzen.

### Zerk bultzatzen zaitu euskara ikastera?

Euskara ikasteko arrazoi nagusia nire seme-alabak euskaldunak izatea izan zen. Euskara eskolan hitz egin eta ikasten dute. Horregatik, nik ere ikasteko beharra sentitu dut, etxeko lanekin lagundu ahal izateko. Horretaz gain, niretzat ere bada aberasgarria, izan ere, beste hizkuntza batzuk ikasteak bizitza aberasten du, eta kultura-aniztasunaz baliatzen laguntzen du.

### Oraingoan, oso talde berezian ikasten ari zara euskara.

Bai, euskara berriro ikastea zen nire nahia duela bost urtetik hona, utzi nuenetik. Izan ere, euskarazko elkarrizketa bat entzuten nuen bakoitzean, ezintasun handia sentitzen



nuen, ia hizketaldi osoa ulertu arren, ezin nuelako hizkuntza berean erantzun.

### Zure ustez, garrantzitsua al da proiektu honek datorren urtean jarraitzea?

Bai, uste dut oso garrantzitsua dela proiektu honek irautea eta aurrera jarraitzea, behin hizkuntza baten erritmoa hartuta, hitz egitea lortu arte jarraitzeko beharra sentitzen duzulako.

### Zer lortu nahi duzu ikastaro berri honetan?

Ez dut esango hitz egin nahi dudarik, baina eguneroko oinarrizko hizketaldietan euskaraz komunikatzen saiatuko naiz.

### Zure ama hizkuntzaz gain, hainbat hizkuntza hitz egiten dituzu. Zure

### ustez, zein da hizkuntza berri bat ikasteko sekretua?

Arabiera eta bereberea dira nire ama hizkuntzak; gaztelaniaz hitz egiten dut, eta frantsesez eta ingelesez defendatzen naiz.

Laster euskaraz egitea ere espero dut. Edozein hizkuntza ikasteko interesa, borondatea eta praktika handia behar dira.

### Zein da euskaraz gehien gustatzen zaituzun hitza?

Gustuko hitz asko ditut euskaraz, baina gehien gustatzen zaidana *bakea* da. Azkenik, lerro hauek aprobetxatu nahi ditut nire aurreko irakasleei (Lierni eta Amaia) eta gure egungoei (Nadhet eta Egoitz) eskerrak emateko egiten ari diren ahaleginagatik. ■■■

# Herriko musikariak: txarangak, bandak... (I)



**IÑAKI ITURAIN IITURAIN@GMAIL.COM**

ARGAZKIAK: IBON GAZTAÑAZPI, JOSE MARI LIZASO ETA MILA AROSTEGI

Aurtengo Balearen Egunean, euritik plazan babestuta, Getariko musika bandak eguerdia alaitu zien bertaratutako musika zaleei, kontzertu bikaina eskainiz. Emanaldia Benitoren *Nire herria, mitrotz leinua* kantuarekin eta *Balearen bertsoak* interpretatuz amaitu zuten. Entzule batek hala esan zuen: "Zer pena, Oriok ez izatea holako musika bandarik".

Handik hilabete eta erdira, San Pedro egunean, musika banda ez, baina aurtun Orion sortu den txaranga berria plazaratu zen lehenengo aldiz. Hiru hilabete lehenago, martxoan, abiatu zuen udalak proiektua herriko festa eta ekitaldi nagusiak girotuko dituen txaranga sortzeko; eta parte hartzeko gogoz zeudenei animatzeko mezua helarazi zien: txaranga irekita dago herritar guztiei. Sanpedroetan, herriko kaleak alaitu zituzten beren kantuekin; geroztik, arraunlariak banderarekin etxeratu diren bakoitzean, errezebimenduak musikatzeaz arduratu da herriko txaranga, "*Aliron, bandera da Orion*". Herrian "oso harrera ona" izan duela adierazi du udalak.

Hogei bat lagun elkartu dira orain arte, eta arduradunak

gustura daude gazteek erakutsitako inplikazio eta jarrerarekin. 7 urteko Samuel da taldeko gazteena, danborra jotzen du. Martin Perona da zaharrena, 72 urterekin, eta bera da oraingo txaranga duela 47 urte sortu zenarekin lotzen duen katebegia.

Txaranga sortu berriko musikari gazteei ondo etorriko zaie nora doazen jakiteko nondik datozen jakitea. Horretarako, begiratua emango diegu txaranga hari eta haren aurretik izan zen musika bandari.

## **Oraingo txarangaren aurrekoa**

1970eko apirilean musika bandaren zuzendari hasiberria zen Juan Oridenen heriotzak ekarri zuen bandaren bukaera. Irailean, hala ere, arraunlariak Kontxako bandera irabazi zutela eta, elkartu eta jo zuten alirona herriko plazan, azkeneko aldiz. Handik aurrera, 1976 arte, Perona familiako kideek osatutako taldetxo batek hartu zuen estropalarien garaipeneko festak musikatzeko

## **MARTIN PERONA DA ORAINGO TXARANGA DUELA 47 URTE SORTU ZENAREKIN LOTZEN DUEN KATEBEGIA**

ardura, baina bestelako emanaldirik gabe.

1976an, ahalegin bat izan zen berriro musika banda bat osatzeko. Ez zuen arrakastarik izan: bandarik ez, baina txaranga sortu zen. Bandaren igandeeetako plazako dantzaldia utzi eta kalea hartzea erabaki zuten, Orioko plazatik euskal herrietako kaleetara, festak eta ospakizunak musikaz alaitzera.

Txaranga hark bazuen ezaugarri berezi bat: edozein txarangak bezala, instrumentuak jotzen zituzten, baina baita ederki asko kantatu ere; oso ahots onak zeuzkan. Jose Mari Lizaso *Auxokalte* zuzendari zutela, Gipuzkoako eta inguruko herri askotan ibili ziren, kantuan. "*Xubero eta Behe-Nafarra, Lapurdi ta Nafarra, Gipuzkoa eta Bizkaia; zazpigarrena, Araba, gure zoriona; laralala, lala, lala, larala lalala, lara, lara...*". Horixe zuten kantu kutuna, nonahi eta beti kantatzen zutena. Iparraldera joateko joera nabarmena erakutsi zuten: Hendaia, Donibane Lohizune, Biarritz, Baiona, Bidarra, Hazparne... Ezpeletan askotan izan ziren. Peio Dospital euskal errugbilari ezagunena ondo oroitzen da: "Urtero etortzen zen Orioko txaranga, adiskidetu egin ginen oriotarrekin". Lizasok gogoan du, harro, nola ezpeletarrak





Aurtengo irailaren 10a, estropada eguna, Kontxako bigarren igandea, Orioko txaranga sortu berria, Donostiara abiatu aurretik.

aurreneko aldietan bandera frantsesarekin kaleratzen ziren, baina handik urte gutxira batera banderarik gabe.

Txarangak 1983an jo zituen azken notak. Taldekide batzuek, hala ere, Egunsenti otxotea osatu eta abesten segitu zuten.

**Txarangaren aurreko musika banda**

Txaranga haren aurrekari, musika banda izan zen Orion, 1927tik 1970era. Felipe Arostegi izan zuen zuzendari azken 40 bat urtean. Felipe zenaren alaba Milagrosek aitaren eskuizkribu bat helarazi digu, bandaren historia azaltzen duena, nolabaiteko autobiografia. Karkaran lehen ere plazaratu genuen musika bandaren historia (418. zbk.). Baina Arostegiren idatzi pertsonala testigantza inportantea da, aurreko artikulua hark jaso gabeko xehetasun interesgarriak dakartzalako.

Hauek dira Arostegiren hitzak, euskaratu eta laburtuta:

"Orioko musika banda 1927an sortu zen, Joakin Cortes alkate eta Antonio Marin

*estremeñoa* zuzendari zirela.

Marinek instrumentu guztiak ezagutzen zituen eta gehienak jo. Tronpeta eta tronboia zituen kutunak. Musika erakusten hasi zen herrian, eta ikasi zutenekin talde bat osatu zuen, musika banda sortzeko: Santi Aramendi, David Suarez, Esteban eta Jose Migel Leunda, Dionisio Larrañaga, Pedro Etxeberria, Juanito Iturain, Jose Mari Arostegi, Jose Orbegozo,



Txaranga berria aurtengo San Pedro egunean plazaratu zen. Munduko gazteenetakoa izango da.

Jose Esnal, Modesto Elizalde eta Felipe Arostegi eta ni neu. Ondoko urteetan batzuek utzi eta beste batzuk sartu egin ziren bandan. Berrien artean, Anjel Lekuona, Jose Arostegi, Esteban Elizondo, Manuel Etxaide, Bizente Larrañaga, Santos, Carlos Arribas, Pedro eta Bizente Ikazeta eta Ramon Oriden.

Marinek jokoan ikasi zuen, apustuan, kartetan eta



Baionako errugbi zelaian, 1980ko udan, Orioko txaranga, hurrengo bi urteetan liga irabaziko zuen Errealeko futbolariekin.



Txaranga, Errealak Baionan Iparraldeko ikastolen alde jokatu zuen futbol partidaren aurretik.

frontoian. Donostiako Urumea frontoira joaten hasi zen, eta zorrak egin zituen artekariekin. Zaletasuna bizio bihurtu eta alde egin behar izan zuen. Musika banda zuzendari gabe geratu zen, solfeoan ondotox nekiela-eta ni nintzen zuzendari orde. Ondoreneko urteetan gorabehera asko izan ziren, Donostiatik etorri izan ziren musikari batzuk, zuzendari lanera: *Aldasarri*, Povedano, Duranguez...

Ni 1930ean soldadu joan nintzen, Marinara. 17 hilabete eman nituen han; musikaria nintzenez, hango bandan sartu ninduten, bigarren tronboia jotzen. Asko eta ondo ikasi

nuen, ia egunero genuen-eta kontzertua. 1931n Errepublikaz ezarri zen Espainian; horrek soldaduska laburtzea ekarri zidan. 1932an, herrira

etorrita, banda desegiten ikusi nuen. Eztabaidak eta haserreak izan ziren. Errenteriako txaranga bat etortzen hasi zen, 12 bat lagunekin. Urtebete inguru pasatu zen bandarik gabe.

### **Felipe Arostegi, zuzendari**

Batzuek berriro hastea erabaki genuen. Ni izendatu ninduten zuzendari. Erzilla alkatearengana jo genuen. Ez zuen aldeko jarrera erakutsi, baina onartu zigun aurrera egitea, baldintzak jarrita: musikari bakoitzari bost pezeta emanaldiko, 15 musikari gehienez, eta instrumentuen konponketak gure kontu. Guk

onartuta, entseguetan hasi ginen, Berganteneko lokalean. Udalak alokatuta zuen lokala, baskula bat zegoen bertan txerriak pisatzeko. Entsaio asko kaiolan txerria zegoela egin genuen, zikin-usainarekin. Hala ere, aurrera egin genuen, musikari berriak sartu eta, 1934an, igande arratsaldean plazan jotzen hasi ginen.

1935eko Bazko egunean eman genuen lehen kontzertua plazan, nik zuzenduta; *Katiuska 1. eta 2. fantasia* pasodoblea jo genuen. Herritarren txalo-zaparrada handia jaso genuen. Ondoren banketea izan genuen, eta postrean pergamino bat oparitu zidaten, eta zilarrez grabatutako batuta. Arratsaldean, herritarrentzako dantzaldia jo genuen.

Handik aurrera dena goraka joan zen. Entseguetarako beste soto bat eskuratu genuen, San Roman, Txolarra eta Jose Ramon Azkuerena zena. Astelehen eta larunbata ez beste egun guztietan entseatzeko; pieza berriak ikasi genituen. Egun batean zarzuela konpainia bat etorri zen Donostiako Principe antzokira. Katiuska jo behar zuten, entseguan aipatu nien bandakoei eta denak prest joateko, bi autotan joan ginen 15 lagun, denak pilotuta. Palkora joan ginen, ez oso apainonbait, denak begira genituen-eta. Zoragarria izan zen.

### **Felipe eta Modestoren ezkontzak**

1936ko urtarrilaren 4an ezkondu nintzen; bandako Modesto ere egun berean. Haiek Aian, baina bazkaria denok batera egin genuen eta eztei-bidaia ere bai. Orduan Ignacio Aiestaranen sotoan

entseatzen genuen; han ere ospatu genituen bi bodak, barrikotearekin. Uztailaren 18an gerra etorri zen. Guk, hala ere, igandero jotzen segitu genuen, harik eta gutako batzuk soldaduskara deitu gintuzten arte. Banda bertan behera gelditu zen. Garai zailak izan ziren, herriko bi zubiak lehertu zituzten, erriorearen gainekoa eta Altxerrikoa, trenbidearena. Bandako denok joan behar izan genuen gerrara.

### Gerra bukatuta, berriro jotzen

1937tik 1940 arte, Orion ez zen bandarik izan, anaiak anaien kontra elkar hiltzen. Tristeia izan zen. Gerra bukatuta, mutil gehienak pixkana etxera itzultzen hasi ziren: irabazleen aldekoak, beren kuarteletatik; Anjel Lekuona, preso egondako kontzentrazio-eremutik. Baina denak ez ziren etxeratu: Ramon Oliden, bonboa jotzen zuena, hil egin zen frontean; gure anaia Jose Mari, berriz, Frantzian geratu zen.

Joakin Cortesen ekimenez, 1941ean berriro elkartu ginen. Musikari gazte berriak batu ziren. 1945ean, 21 kide zituen musika bandak. Hasiera-hasierakoak, hauek: Modesto Elizalde, saxo altua; Avelino Quintana eta Ignazio Leunda, klarineta; Jose Arostegi anaia, baxua; Bizente Larrañaga, kaxa; eta Manuel Etxaide, txindata. Berriak, hauek: Anjel Lekuona, bonbardino; Antonio Elizalde eta Juan Jose Zubizarreta, fiskorno; Juan Oliden, tronpeta; Benjamin Sagarna, klarineta; Carlos Perona, rekintoa; Eladio Zubizarreta, saxoa; Lorenzo San Sebastian, tronpeta; Luis Genova, Lino Urdangarin eta Ignazio Genoba (tronboia); Remigio Lertxundi



Orioko musika banda, 1948an, herriko plazan. Tartean, 3 Arostegi, 3 Lertxundi eta 2 Oliden. Felipe Arostegi, zuzendari.

eta Laureano G. Txabarri, klarineta; eta Rafael G. Txabarri, baxua.

1950ean, astean hiru saio egiten genituen. Musika

akademikoa tokiz aldatu genuen: gerra aurrean Jesusa Txokolaterena zen etxera joan ginen, gerra bukatuta Donostiako batek erosita Falangeari utzi zionera. Tomas Agirrek administratzen zuen eta hari ordaintzen genion errezeboia. Garai hartan talde polita genuen. Igandero eta festetan jotzen genuen: Bazko igandean, San Pedro egunean, eta Santa Xexilian bi egunez.

Etxe hura, gero, Nemesio Ondoabalek erosi zuen. Zinea ematen hasi ginen igandeetan. Zine mutua. Bandako kide batzuk, Modesto, Abelino, Jose lehengusua, ni... lokala egokitzen hasi ginen, tabike bat botata. Aretoa handitu eta



San Nikolas eguna (1948-12-06), arrauneko banderen bedeinkazioa.

bankuak jarri genituen, haurrek non eseri izateko. Inocencio Elgorriagak ematen zizkien pelikulak haurrei, guk plazan musika jotzen genuen bitartean. 1953an, Ondoabalek proposatu zigun beheko lokaletik lehen solairura igotzeko, berak behean garajea jartzeko. Goiko lokalaren ondoan. Falangearena zegoen, ordurako abandonatuta. Han, herriko jendearen fitxak topatu genituen, argazki eta guzti, Francoren Movimientoarekiko zuen jarrera eta ekintzak azaltzen zituztenak. Kontu barregarriak.

Horrela segitu genuen, 1970ean gure ibilbidea bukatu genuen arte". ■■■■

## PUBLIZITATEA



**MARIJO**  
BURDINDEGIA  
Eusko Gudari, 8 behea · ORIO  
943-13 47 29



**Lizaso**  
**Dekorazioa**  
Eusko Gudari, 48 · ORIO · 943-83 07 84  
itzilizaso@gmail.com

# ZINKU

## ERAIKUNTZAK

- Igeltserotza orokorra
- Etxebizitzen erreformak
- Teilatua
- Sukalde, komunak, etb.
- Eraisketak

*deitu eta eskatu aurrekontua  
konpromisorik gabe*

*Ander Zinkunegi*  
**667 74 02 79**

# URANGA

burdindegia

## Opari, menaje eta erremintak

Eusko Gudari, 5 · ORIO · 943-83 12 36

# Xarkitektura

www.xsarkitektura.com

herrikobarra, 11 behea · ZARAUTZ · 943-13 43 58

- eraikuntza zerbitzuak
- eraikinen mantenua
- errehabilitazioak
- proiektuak
- txostenak
- ITE-ak
- obrak




**Zaragueta IPI**  
HERRI ESKOLA 2-16  
Orio



943 89 92 43 / kaixo@zaragueta.eus  
www.zaragueta.eus

**IBER glass**  **Automobilaren kristaleria**  
Errotulazioa  
Hitzordua 689 34 11 01  
edo LAIARANen

**glass**   
talorea



Estropalari, 12

**LAIARAN**  
Lanerako arropak  
5XL arteko tailak  
PERTSONALIZAZIOA



## ZARAUZKO BEILATOKI-ERRAUSKAILUA

Zarauzko Beilatoki-Errauskailuak errausketa-labea du orain, eta zerbitzu integrala eskaintzen du betiko profesionalekin eta instalazio moderno, eraginkor eta argitsuekin.

Betiko zerbitzu bikaina espazio berri batean.  
943 894 937 / 943 422 129 (24h) | [memora.es](http://memora.es)  
Abendaño Kalea, 2 – Zarautz

 **memora** Zarautz  
Hileta  
Zerbitzuak



## "Haur bakoitza bakarra da"

ALOÑA ZUMETA GURASOA

**A**loña Zumeta Mattinen ama da, 2 urteko ikasle berri baten ama.

Lanbidez andereñoa da, eta horregatik eskola ezagutzeko aukera izan zuen iaz. Hala ere, Mattinen eskolaratzeak kezkak sortzen zizkion.

### Zuen etxean nola bizi izan duzue Mattinen eskolaratzea?

Uda ederra pasa eta gero, irailean iritsi zen eskolan hasteko ordua. Eskola ezagutzen nuen, bertan lan egin nuelako. Beraz, ezaugarriak ezagutzen nituen: espazio goxoak, haurrarekiko gertutasuna, metodologia... Ni aiarra izanik, txikitan eskolan bizitako gertuko giro goxo hura gogorarazten zidan. Hala ere, egokitzapenak urduritasuna sortzen zigun. Ez dakigu nor zegoen urduriago, haurra edo gurasoak!

### Etxean zerbait egin al zenuten Mattinek eskolarako lehen pausoak errazago emateko?

Bai. Nik espazioa ezagutzen nuen, baina Mattinek ez. Ekainean 2 urteko geletan egoteko aukera izan genuen. Horrez gain, eskolarako behar zituzten gauzak txikiarekin prestatzen joan gara (motxila, mantala, familiaren argazki-albuma...). Eta udan, hondartzarako bidean ere, eskolatik pasatzen ginen eskola eta bertako parkea ezagutzen joateko.

### Nola joan da egokitzapena?

Nahiko erraz. Lehen egunetan gurasoek gelan bertan egoteko



aukera izan dugu, eta haurrak bertako espazioak eta pertsonak ezagutzen joan dira jolasean. Pixkanaka, lotura afektiboa egiten joan ahala, haurraren denborak errespetatuz, gurasoak urruntzen joan gara. Orain Mattinek goiz osoa pasatzen du eskolan, eta bertan bazkaltzen du.

### Orokorrean, nola ikusten dira haurrak?

Haur bakoitza bakarra da. Bakoitzak bere denbora behar izan du gurasoengandik bereizteko, espazio eta pertsona berriekin seguru sentitzeko. Gaur-gaurkoz, Mattinen bila joaten garenean, denak jolasean dabilta lasai-lasai. Gustura ikusten ditugu, pozik, eta horrek sekulako lasaitasuna ematen digu. Haurra ongi ibili dela, ondo zainduta dagoela, eta bila joatean berriz pozik hartzen gaituela sentitzea izugarria da. Esker hitzak besterik ez ditugu eskola eta irakasleentzat. ■■■



## Emetasuna

**Z**er da emetasuna? Bizitza osoan esan digute esanekoa izatearen, ahultasunaren, amatasunaren eta beste zenbait ezaugarriren sinonimoa dela emetasuna. Hiztegian begiratzea besterik ez zaigu geratzen, emetasunaren irudi perfektua islatzeko: leuntasun, eztitasun, onberatasun, errukitasun eta pazientzia ditu ezaugarri. Baina, zer da benetan emetasuna?

Emetasuna ez da obediencia, emetasuna ez da gure burua txikitzea, ez da ahultasuna, ez da isilik gelditzea eta ez da ondokoak nahi duen hori izatea ere. Emetasuna ez da samurra edo otzana izatea.

Urteetan zehar emetasunaren ikuspuntua aldatzen joan da. Hirurogeiko hamarkadan emetasuna emazte ona eta otzana izatea zen. Hirurogeita hamarreko hamarkadan, berriz, emakumeek haurrak izan bitartean ikasten zuten eta ondoren ikusezin bihurtzen ziren etxeko altzoan. 2000. urtean, ordea, argaltasuna, tiro baxuko galtzak erabiltzea eta Britney Spears entzutea zen. Eta, gaur egun, non geratzen da emakumearen irudia?

Nik 2023ko izurrite honen aurrean betaurreko moreak jartzeko eta pentsatzen duten hori beldurrik gabe adierazteko eskatuko nieke. Beren burua edozertarako gai ikusteko. Beren sentimenduak baliozkotzat jotzeko guztien gainetik, baita norberaren autokritikaren gainetik ere. ■■■

# Azaroa

**Margotu** Azaroa urteko hamaikagarren hilabetea da, kuien eta onddoen garaia. Goian idatzita dago, baina kolore apur bat merezi du, ezta? Bada, eman iezaiozu!

## HIZKI-MARRAZKI ALFABETOA



**ALdea dago** Aurki itzazu bi irudien arteko hamar aldeak.



## Mezu gordea

Eman marrazkitxo bakoitzari bere hizkia eta esaera zahar bat agertuko zaizu. Erabili alboko hizki-marrazki alfabetoa.



## Handienetik txikienera



Ordenatu jertse hauek handienetik txikienera. Eman handienari 1 zenbakia, eta txikienerari 9.

# Gauza bera da...

Zer diote gure lagunek? Hitz bana falta zaie, ezta? Begiratu bakoitzak ondoan duen taulari eta zoaz laukiz lauki, hizkiak batuz, geziek agintzen dizuten moduan. Bi kasuetan, nabarmenduta dagoen koadrotxo duzu abiapuntua. Jakin ezazu azarolari deitzeko moduz ari direla biak.




Z	I	A	F	O	R
O	E	M	E	K	U
R	O	S	E	N	I
I	P	U	R	U	D
O	R	E	O	I	K
N	O	A	U	H	A

H	U	N	Z	I	
I	A	G	E	T	
T	Z	I	Z	U	
Z	P	I	K	A	
A	N	T	L	A	



# Itzala

Lotu hosto bakoitzari bere itzala



Soluzioak ikusteko:  
[www.plazanbazan.eus/](http://www.plazanbazan.eus/)

# DOAN EZ DA DEBALDE



ZURE EKARPENA BEHAR DUGU.  
EGIN ZAITEZ BAZKIDE.

bazkide@ukt.eus o 943-81 38 41